ASTELEHENEKO

# Goienkaria

2009ko urriaren 19a > Astelehena > VII. urtea > 250. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Animatu software librea erabiltzera, errazagoa eta euskaldunagoa da"

**Ander Elortondo**

Librezale.org > 08



**G2a** **Erantzun eta Inoreneroniren ikasgaia** > 29

**ELKARTASUNA**
**Hilaren 26tik 30era, Palestinaren aldeko ekintzak Arrasaten** > 15

**KULTURA**
**Salmeronek teknika zaharrekin egindako erretratuak ikusgai** > 18

**MENDI BIZIKLETA**
**Parte-hartze eta ibilbidearekin pozik daude bizikleta zaleak** > 26

**EUSKALGINTZA** > GORABEHERAK

## Babes eta errelebo eske daude euskara elkarteak

**PREMIA** Jarduera eta talde gehien dutenak dira Jardun eta AED, baina gazteen eta bazkideen babesaren premian daude

**LOZORROAN** Axtrokik orain dela hiru urte utzi zion lanari, Laixanek aurki, eta Idolazek ere ez du funtzionatzen > 03



**LOKATZA** Putzuko proba izan zen zapatuko zailenetako bat. JOSETXO ARANTZABAL

## Oñederra aretxabaletarra, hirugarren

4x4ko Euskal Herriko txapelketan hirugarren postua eskuratu du Xabier Oñederrak, Apotzagan (Eskoriatza) jokatu zen txapelketako azken saioan. Han ere, txapeldun nagusia Aitor Llanera izan zen eta bera da baita Euskal Herri mailako txapelduna ere. Zapatuko hitzorduaren arrakasta ikusita (bai lehiaketa zein jende aldetik), antolatzaileek aurrerantzean ere txapelketa ibarrean jokatzea gurako lukete. > 21

**ARRASATE** > MINTEGIA

## Euskal gaien gaineko ikerketak ezagutzera

Bihar, martitzena, hasi eta eguenera arte, Euskal Herriko hainbat unibertsitateko eta Euskaltzaindiako zein Argentinako, Boliviako, Txileko, Uruguayko eta Ekuadorko 45 bat irakasle eta ikertzaile batuko dira. Helburua da euskal gaien arloan azkenaldian dauden ikuspuntuak eta lanak aurkeztea. Hala, Euskal Herria Mugaz Gaindi nazioarteko mintegiaren seigarren edizioa Arrasaten egingo dute, Kulturaten. > 06

**HEZKUNTZA** > JAIA

## Arrasaten egingo dute Ikasle Eguna azaroan

Ikasle Abertzaleak urtero antolatzen duen jai eguna Arrasaten egingo dute aurten, azaroaren 7an, hain justu. Egun horretan ikasle talde horren aldarrikapenak ezagutzera emango dituzte eta hezkuntza sistema nazionalaren aldeko ospakizun erraldoia egingo dute. Egitarauari dagokionez, umeendako jolasak, erakusketak, herri bazkaria, antzezlanak, kale agerraldiak eta kontzertuak egingo dituzte. > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**BERGARA** > OMENALDIA

## Pelloren lan altruista eskertu zuten

Garitanok Bergarako hainbat elkarteri lagunduz egindako lan altruista eskertu zioten bergararrek. Hala, egunerako propio gertatutako lepoak zapian, jende ugari batu zen meza, kontzertu eta omenaldi-bazkarira. > 12



Pello Garitano, zapiarekin. J.ARANTZABAL

**FUTBOLA** > 3. MAILA

## Zalla nagusi UDAren zelaian

Aukera gutxiko partiduan, bizkaitarrek egin zuten lehiako gol bakarra. > 22-23




**Bernardo Atxagaren azken liburua opari. Nahi?**

Zoaz 7. orrialdera


Xacobeo 2010
Galicia
EROSKI
40 urte zurekin
2009ko urriaren 15etik 21era
arte produktu freskoetan.
Urriaren 24ra arte gainerako eskaintzetan.
www.eroski.es
Zuk esandakoa entzun egingo dugu:
902 54 03 40
Produktuak €1 €2 €3 -tan
9 puntu gehiago
2 unitate
3 €
PUVELA
Peques 3
Leche de Crecimiento
+Hierro
+Vitaminas
+OMEGA3 DHA
DESDE 12 MESES
PULEVA, hazteko esnea
Peques 3 esnea, litro 1
Unitate 1 erosita: 1,59 €
2 unitate erosita: Litroa
1,50 €tan
%50 arteko beherapena ehunka Jostailutan
Ordaindu
3 HILABETEAN INTERESIK* GABE
TAE: %5,49
komisioa %1
bazar, etxetresna elektriko eta ehungintzako zure erosketak
* Santander Consumer Finance S.A.k finantzatu eta onetsi beharreko EROSKI re Visa txartelaren bitartez. Finantzaketa 3 hilabetean. Urteko interes-tasa nominala %0. 90€tik gorako erosketetarako. Ordainketa geroratzeagatik lehenengo kuotan ordaindutako komisioa %1. Ordainketak kitatzeko data hil bakoitzaren 5ean. UTB aldatu egin daiteke kontratazio-egunaren arabera. 2009ko urriaren 24ra arte balio du. RBE: 2864/09. EROSKIk diruz lagundutako interesak.
VISA
red

**HIZKUNTZA** > EUSKARA

# Ibarreko elkarteak babes eta errelebo eskean aurrera egiteko

**LOZORROAN** Axtrokik orain dela bi edo hiru urte utzi zion jarduerari, Laixanek aurki etengo du eta Idolazek ere ez du gaur egun funtzionatzen

**BIDEAK BERRITUZ** Txirritola eta Loramendi aztertzen dabiltza zein bide hartu behar duten aurrerantzean; Goibekok Espaloira zabaldu du bidea

**SENDO** Jarduera eta talde gehien dauzkaten elkarteak dira Jardun eta AED; hala ere, jarduera horiei eusteko, gazteen eta bazkideen babesa behar dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Berriki jakinarazi du Oñatiko Laixan euskara elkarteak urtarriletik aurrera guztiz etengo duela jarduera. Ibarrean, Antzuolako Idolazek eta Eskoriatzako Axtrokik ere funtzionamendua etena dute. Aramaioko Txirritola eta Aretxabaletako Loramendi antolaketa nolabait berregituratu nahian dabiltza; Elgetako Goibekok Espaloia Kafe Antzokira bideratua du jarduna; eta Arrasateko AED eta Bergarako Jardun dira beharbada osasuntsuen daudenak. Ibarreko euskara elkarteen egoerarekin kezkatuta kideei galdetu diegu horren gainean.

Idolaz elkarteko Jabier Etxanizen esanetan,"elkartea desegiteko asanblada egin behar da eta azken batzarretan apenas azaldu da jenderik, badirudi beldur direla joanez gero lanerako hartuko dituzten".

Laixaneko Jose Luis Fernandez Maurek dio ez zetozela bat Laixanen ekintzak eta elkartearen filosofia. "Gainera jendearen parte hartzea gutxituz joan da. Hortaz, behartuta sentitu gara elkartearen jarduera etetera".

Axtrokik ere ez du funtzionatzen. "Errelebo faltarengatik utzi genuen.Bazkideen artean inork ez zuen lekukoa hartu eta jende berririk ez genuen erakarri. Hortaz, ez zeukan zentzurik jarraitzeak", dio Andoni Bengoak.

**LEHENTASUNAK MARKATZEN**

Aramaioko Txirritola elkartean azken urteotan motel antzean ibili ostean, batzorde berria eratu dute eta gogotsu daude. "Orain gure erronka nagusia da erabakitzea Txirritola zertarako izan behar den", esan digu batzordeko kide Mariasun Lopez de Bergarak.

Aretxabaletan, Loramendi elkartean ere, aldaketa egoeran daude: "Orain arte neurri handi baten kultura ekintzekin jokatu izan dugu, eta bazterrera ez utzi arren, ari gara lehentasunak markatzen", esan digu elkarteko langile Larraitz Iñurrategik.

Elgetan, Goibeko elkarteak sekula baino bazkide gehiago ditu, 250 inguru. Elkarteko presidente Iban Arantzabalen esanetan, "Espaloia zabaldu zenetik Goibekoko bazkideek abantailak dituzte han. Horrek eragin du bazkide gehiago izatea. Goibekoren jardun nagusia bideratu da Espaloira. Hala ere, Goibekok jarraitzen du funtzionatzen euskararekin lotutako jardueretan ere".

Jardunen egoera ona dela esan digu Nerea Mendizabal teknikariak, baina beharbada ez dutela hain argi zein bide hartu behar duen. Bestalde, zera azpimarratu du: "Euskara elkarte batzuk, batez ere herri handienetan eta teknikariak daudenetan funtzionatzen dute; herri txikietakoak edo baliabide pertsonal zein ekonomikoak ez dituztenak poliki-poliki emendatzen ari dira". Bere esanetan, "euskara elkarteak sortu zirenean, jendeak beste sentsibilizazio bat zuen euskararekiko eta bazkide pila bat egin ziren. Orain borondatez lana egingo duenik egon ezean, zaila da aurrera egitea".

Arrasateko AED elkarteko presidente Eñaut Muxikak osasuntsu ikusten du elkartea, baina autokritika ere egin du: "Belaunaldien arteko saltoa izugarria izan da. Orain dela 25 urte, sorreran, jendea oso motibatuta zegoen. Gaur egun bazkideen batezbesteko adina oso altua da eta ezin dugu euren mende egon. Bazkideen kontua berrantolatu ezean arazoak jarraituko du, hortaz, gazteak erakartzeko modu berriak martxan jartzea da gure erronka nagusia".

Gaur egun, euskararen normalizazioa ardatz hartu arren, elkarte gehienek kultura eta aisialdi ekintzak antolatzen dituzte batik bat. AEDtik, adibidez, esan digute parte hartzerik handiena bertso saioa, dragoi jana eta horrelako ekintzetan izaten dela. Jardunen, esaterako, trikiti eta bertso eskolak dituzte eta era berean euskara errefortzu eskolak eta mintzapraktikak ere koordinatzen dituzte.

**ETORKIZUNA**

Abian dauden elkarteak eguneroko antolaketarekin ez ezik, etorkizunarekin ere kezkatuta daude, baita ibarreko beste elkarteak ere. Idolazeko Jabier Etxanizek, esaterako, gaizki ikusten du etorkizuna: "Antzuolan, euskararen aldeko lan boluntarioa egiten duen jende gehiago dago Euskal Herrian Euskaraz taldean. Gaitzerdi euskararen alde lan egiteko jendea prest balego, taldeetan ez izanda ere".

Eskoriatzan Ein Geinke taldea sortu da euskararen inguruan herria dinamizatzeko eta horiek Axtrokiren bideari jarraitzeko gertu baleude, laguntzeko gertu azaldu da Andoni Bengoa.

Nerea Mendizabal Jardunekoak hutsune nabarmenena jendearen motibazioan eta sentsibilizazioan ikusten du. "Bazkideekin harremana indartu beharra dago; esaterako, sare sozialak, *facebook* kasurako, erabiliz. Badira bazkide gutxi batzuk gureganadik gertu, baina gainontzekoek euren kuota ordaintzen dute, besterik ez". AEDko presidenteak ere gazteengana heltzeko teknologia berrien inguruko lantalde bat abian ipini nahi dutela dio.

Jardunean, herriak euskaldundu nahian dihardute, aurrera egiteko babes gehiago behar dute eta horretarako bide berriak jorratu behar dira.



Ibarreko euskara elkarteek urte asko daramatzate lanean; AEDk iaz bete zituen 25 urte (argazkian) eta Jardunek datorren urtean beteko ditu 20. GOIENKARIA

ESANAK

**"Herri txikietako euskara elkarteak edo baliabide pertsonal zein ekonomikoak ez dituztenak pixkanaka emendatzen dabiltza"**
**Nerea Mendizabal** > Jardun

**"Jarduna eten dugu Laixanen ekintzak eta filosofia bat ez zetozelako eta parte hartzea gutxitu delako"**
**J. Luis Fernandez. Maure** > Laixan

**"Elkarte inguruan jende asko daukagu laguntzen, baina lehentasunak markatzea eta abian jartzea falta zaigu"**
**Larraitz Iñurrategi** > Loramendi

**"Jendea interesatuta balego berriz elkartearen jardunari eusteko, laguntzeko gertu egongo ginateke"**
**Andoni Bengoa** > Axtroki

**INGURUMENA** > EUROMONTANAREN KONGRESUA

## Egunotan landa guneak aztertu dituzte Arantzazun

Europa osotik iritsitako 200 ordezkari inguruk parte hartu dute, hitzaldien bidez

**T.MADINA/M.BITERI** > OÑATI

Euromontanak, mendiko lurraldeen garapenerako elkarteak, urteroko kongresua egin zuen eguenetik egubakoitzera bitartean Arantzazun. Horretan, Europako mendien balio erantsia izan zuten hizpide: landa guneak bizirik mantentzeak dakartzan onurak, hain justu.

Mendiko lurraldeen lankidetza eta garapenerako sektore anitzeko europar elkartea da hori, eta bertan biltzen dira kontinente osoko 18 herrialdetako 72 erakunde; tartean Eusko Jaurlaritza, eta iaz ezkero, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Arantzazuko kongresuan Europa osotik etorritako 200 ordezkari inguruk parte hartu izan zuten, hitzaldi, mahai inguru eta iritzi trukaketen bidez.

**ALDARRIKAPENAK**

Tartean, Gipuzkoako Diputazioak landa garapenaren inguruan abiarazitako proiektuak azaldu zituen; besteak beste, Landagipuzkoa 32 ekimena. Hainbat aldarrikapen ere egin zituen: batetik, politika bateratua egin beharrean, lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartuko duen politika egitea; bestetik, diru-laguntzak ekoizpenean diharduten lurjabeentzat izatea.

Antolatzaileen esanetan, kongresutik ateratako ondorioak ez dira ezerezean geratuko. Hala, etorkizuneko nekazal politikarako baliagarria izango da.



200 ordezkari inguruk esku hartu zuten Arantzazun. GOIENKARIA

**OÑATI** > GIZARTE ZERBITZUAK

## Udaleko batzordean egon nahi dute LAB-Helduek

Gobernuak dio ez dela posible, baina prest dago beste era batera komunikazioa izateko

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Oñatiko LAB sindikatuaren erretiratuen taldeak bilkura egin zuen egubakoitz eguerdian salatzeko udal gobernuak eta alkateak ukatu egiten dietela Gizarte Zerbitzuetako lan batzordean parte hartzeko aukera.

Batzorde horretan erretiratuen interesekoak diren gaiak aztertzen direla-eta, han egon gura dute LABeko erretiratuek. Hori horrela izatea udalbatzaren esku dagoela diote.

Alkateak dio, legez, batzorde horiek itxiak izan behar direla; baina beste bide batzuk badirela dio: adibidez, gai konkreturen bat dutenean, batzordea ezohiko izaeraz biltzea.




Udaletxe aurrean egin zuten bilkura LABeko erretiratuek. J.I.



Maite Etxaniz diputatua, Baketikeko Jonan Fernandez eta Haur eta Gazteen Zuzendari Joxi Insausti. Agerraldian. GOIENKARIA

**GIZARTEA** > INMIGRAZIOA

# Osaba-izeba modukoak izan daitezkeenekin sarea osatu nahi dute

Gipuzkoako Diputazioak eta Baketikek Izeba delako proiektua aurkeztu dute; helburua da adin txikiko atzerritarrak gizarteratzen laguntzea

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gipuzkoak programa berria du. Gipuzkoako Diputazioak eta Baketikek Izeba proiektua aurkeztu zuten-eta egubakoitzean. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrendako harrera osaba-izeba izatea erabaki duten pertsona edo familia boluntarioen sarea eratzean datza eta horren helburua da bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak hobeto gizarteratzen laguntzeko erantzun solidarioa eta eraginkorra ematea.

Egubakoitzean egindako agerraldian, Gizarte Politikako diputatu Maite Etxanizek aipatu zuenez, "komunikabideen informazioek neska-mutil horiek zer egiten duten esaten digute, non bizi diren, zenbat diren edo bere inguruan zenbat istilu, kezka eta gorabehera sortzen duten. Sarritan, informazio horien bidez neska-mutil horiei buruz den-dena dakigula iruditzen zaigu, eta epaitzeko eta etiketa kolektiboak jartzeko gai ere sentitu ohi gara. Baina, egiazki, ezer ez dakigu haietako bakoitzaren historiaz, bizipen eta sufrimendu pertsonalaz".

**HITZARMENAREN ONDOTIK**

Testuinguru horretan, adin txikiko horiek gizarteratzen laguntzeko egin beharrezkoaz jarduteko harremanetan jarri ziren Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Politika Saila eta Arantzazuko Baketik gunea. Izeba egitasmoa bi eragile horien arteko hitzarmenaren ondotik dator.

Gizarte Politikarako Departamentuaren zuzeneko laguntzarekin, borondatezko hainbat familiaren sareko laguntza eskuratzen saiatuko da, babesik gabe dauden neska-mutiko horien harrerako osaba-izeba edo laguntza-familia izan daitezen. Hartara, bizi den harrera-lekuaz gain, erreferentziazko familia bat ere izango du gazte bakoitzak haren inguruan. Hain justu ere, erakunde publikoen eta harrera-lekuen gizarteratze-ahaleginaren osagarri izango dira.

**FAMILIEN EGINKIZUNA**

Gaur egun, bi aukera daude babesik gabeko adin txikikoei familia-laguntza emateko: adopzioa eta harrera. Izeba proiektuarekin, beste aukera bat izateko oinarriak jarriko dira: laguntza-familiak edo harrerako osaba-izebak.

Adin txikikoari familiarteko erreferentziak eman beharko dizkio familiak; hala nola, euskarria, maitasuna, babesa edo gertuko harreman sozialak zabaltzeko aukera eskaintzea.

**BALIABIDEAK**

Izeba proiektuari laguntzeko borondatezko pertsona edo familia modura izena ematen dutenak ez dira bakarrik izango elkartasun-ahalegin horretan. Diputazioak hainbat baliabide jarriko ditu horien eskura; tartean, bi psikologo emakumezkoren laguntza-zerbitzua, adin txikikoaren harrera-zerbitzuarekin koordinatua eta etengabeko harremanean familia bakoitzarekin; hilean 100 euroko diru-laguntza, eragiten dizkien gastuak apur bat estaltzeko; eta ikastaroen, argitalpenen, buletinen eta Baketikek eskainiko dituen saioen bidezko prestakuntza.

EGINKIZUNAK

### Astean behin familiarekin bazkaltzea edo arropa erostea, funtzioen artean

Izeba proiektuaren barruan sartzen diren familiek honako eginkizun zehatzak izango dituzte adin txikiko atzerritarrekin: astean behin, familiarekin bazkaltzera joan edo txango batera gonbidatzea; aldiro telefonoz deitzea; arazo pertsonalak edo administrazioarekin edo heziketarekin lotura dutenak konpontzen laguntzea, dirua ematea izan ezik; hizkuntza ikasten laguntzea; arropa edo oinetakoak erosten laguntzea; adin bereko gazteekin edo euren zaletasunekin bat datozen herriko ekintzekin harremanetan jartzea; bertako ohituretan eta kulturan murgiltzea eta euren tradizioak, sinesmenak eta helburuak ezagutzeko interesa jartzea, besteak beste.

**OSPAKIZUNA** > IKASLE ABERTZALEAK

# Arrasaten egingo dute Ikasle Eguna

Ikasle Abertzaleak urtero antolatzen duen jai eguna Arrasaten egingo dute azaroaren 7an

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Azaroaren 7rako egin dute hitzordua Arrasaten. Egun horretan ikasle abertzaleen aldarrikapenak ezagutzera eman eta hezkuntza sistema nazionalaren aldeko ospakizun erraldoia egingo dute.

Ekitaldiak 10:30ean hasiko dira ikasleen topaketekin. Horien ostean, umeendako jolasak, erakusketak, taloak eta beste izango dira. Eguerdi partean, berriz, kalejira deitu dute eta ikasle bazkaria izango da Seber Altuben.

**MUSIKA ETA ALDARRIKAPENA**
Arratsaldean eta gauean, musika izango da protagonista nagusiena: ikasleen musika taldeen maratoia izango da (eman izena *www.ikasleabertzaleak.org* webgunean), antzerkia eta batukada.

Horren ostean, manifestazioa egingo dute; eta gauean Kop, Esne Beltza, Zea Mays, Beste bat, Radio Afu eta Des-Kontrol-en kontzertuak. Azken talde horrek, gainera, grabatu du aurtengo *Geurea geure kolorez* jaiaren aldeko abestia, Miren Amurizak idatzitakoa.




Ikasle Abertzaleak-eko hainbat partaide eta aurtengo kantua egin duen Des-Kontrol taldeko kideetako bat. GOIATZ ARANA

**POLITIKA** > ATXILOKETEN KONTRA

# Kontzentrazioak eta kale agerraldiak izan dira ibarrean

LABeko eskualdeko delegatuek ibarreko hainbat alkateren babesa jaso zuten

**I.B.** > ARRASATE
Ezker abertzalearen hainbat kideren atxiloketa eta espetxeratzeari erantzuteko, hainbat protesta ekintza izan dira ibarrean asteburuan. Eta, horrez gain, debagoiendar askok jo zuten zapatuan gehiengoa duten euskal sindikatuek deitu zuten kale agerraldira Donostiara.

Egubakoitzean LAB sindikatuko ibarreko delegatuek eta Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Elgetako alkateek kontzentrazioa egin zuten Bergarako herriko plazan eguerdian.




LABek Bergarako herriko plazan deitutako elkarretaratzea. I.BARANDIARAN

Kontzentrazioa egiteko baimena zuten arren, Ertzaintzak baimen eskaeraren formako kontu batengatik espedientea zabalduko duela jakinarazi zien plazan bertan LABeko ordezkariei. Hala ere, kontzentrazioak aurrera jarraitu zuen.

**MANIFESTAZIOAK HIRU HERRITAN**
Horrez gain, egubakoitz iluntzean Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan, hiru herrietan, manifestazioak egin zituzten. Arrasatekoa izan zen jendetsuena, baina hiruetan herritar dezentek esku hartu zuten. Kale agerraldiak normaltasunez egin ahal izan zituzten, eta ez zen bestelako arazorik izan.

Arrasaten kale agerraldia bukatu ahala, azaldu zuten ezker abertzaleak Euskal Herriko "eragile guztiei arduraz jokatzeko deia egiten diela; eta esparru independentista baten artikulazioaren alde lan egiteko".




Arrasaten kale agerraldia egin zuten egubakoitz iluntzean. J.ARANTZABAL

**EKONOMIA** > ONDASUNAREN BANATZEA

# Pobrezia desagertzearen aldeko eguna ospatu zuten

Asteko ekitaldiei bukaera eman zieten Eskoriatzan egindako kale ekintzarekin

**I.B.** > ESKORIATZA
Joan den zapatua, urriaren 17a, Pobreziarekin Amaitzeko Eguna izan zen. Hala, horren harira, Debagoieneko Pobrezia Zero plataformak hainbat ekintza antolatu zituen astean ibarreko herri gehienetan.

Hain zuzen ere, astean *La cuarta guerra mundial* izeneko dokumentala eman dute honako herriotan: Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatzan eta Arrasaten. Helburua izan zen herritarren artean pobreziaren, gastuaren eta bizitzeko moduaren arteko hausnarketa bultzatzea.

Programari bukaera borobila emateko, baina, zapatua aukeratu zuten, leloaren egun bera. Egun horretan Eskoriatzara jo zuten eta han *Pobreziarekin amaitzeko pertsonen izoztea* izeneko kale ekintza egin zuten. Hala, Pobrezia Zeroren komunikatua irakurri ostean, hainbat pertsona minutu batez geldi eta isilik egon ziren. Helburua zen norberak pobrezia zergatik dagoen pentsatzea.

Horren ostean, trikitilariek lagunduta, txikiteoa egin zuten herrian zehar eta, bide batez, eskoriatzarrei informazioa banatu zieten.

**EMAKUMEEN EGOERA**
Bestalde, eguenean, *Emakumeak krisi garaian* berbaldia egingo du Arrasateko Kulturaten, 19:00etan, EHUko Ekonomia aditu Mertxe Larrañagak.



Trikitiarekin lagunduta, informazioa banatu zuten. JOSETXO ARANTZABAL


Euskal diasporako hainbat gaztek Eskoriatza bisitatu zuten 2007an, eta globalizazioaren eragina aztertu zuten. ARTXIBOA

**MINTEGIA** > EUSKAL HERRIA MUGAZ GAINDI

# Euskal gaietako ikerketa berriak plazaratuko dituzte

Hemengo eta diasporako 45 adituk jardungo dute hiru egunetan Arrasaten

Historia, artea, euskal abizenak, zinema, komunikabideak... izango dira ardatzak

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Bihar, martitzena, hasi eta eguenera arte, Euskal Herriko hainbat unibertsitateko eta Euskaltzaindiko zein Argentinako, Boliviako, Txileko, Uruguayko eta Ekuadorko 45 bat irakasle eta ikertzailek euskal gaien arloan azkenaldian dauden ikuspuntuak eta lanak aurkeztuko dituzte. Hori egingo dute VI. Euskal Herria Mugaz Gaindi Nazioarteko Mintegian. Kulturaten izango dira saioak, eta bi arrasatearrek antolatu dute aurten: Jon Ander Ramos eta Ana Isabel Ugalde ikertzaileek.

Jardunaldiok 10:00etan hasiko dira, eta, arratsaldez, 15:30ean; eta entzule gisa gura duena joan daiteke. Bestalde, joaten diren ikasleek eska dezakete 15 eskola-orduri dagokion agiria.

**AMERIKETAKO PRENTSAN**

Sei mahai egingo dituzte. Denetariko gaiak landuko dituzte: adibide batzuk ipintzearren, martitzenean, Habanako Asociacion Vasco-Navarra elkarteaz, Pedro Biteriz edo genoma eta euskal diasporaz jardungo dute, beste batzuen artean. Egun horretan, gainera, Alberto Angulok eta Jon Ander Ramosek oraindik martxan dagoen proiektu baten berri emango dute: Euskaldunak Ameriketako prentsan. Horren gaineko mahai-inguruarekin bukatuko da eguna.

Etzi, eguaztena, artearen eta literaturaren gaineko jardunaldia izango da goizean; eta 15:30ean hasita, irudiaren eta zinemaren gaineko beste bat. Bitxikeria gisa, *Thunder in the Sun* (1957) filma emango dute, eta hor euskaldun etorkinez ematen den irudia eztabaidatuko dute. Ramosen esanetan, "film horretan euskaldunon irudi guztiz desegokia ematen da. Film ezaguna da, Euskal Telebistan hainbat aldiz eman dutena".

Eguenean, hilak 22, euskal abizenen gaineko mahaia egingo dute lehenengo Euskaltzaindiko Jose Luis Lizundiak eta Mikel Gorrotxategik. Segidan, deituren inguruko hainbat kasu azalduko dituzte. Jon Ander Ramosen esanetan, diasporako euskaldunek gero eta interes handiagoa dute euren jatorriaz eta deituraz: "Mikel Gorrotxategik esan zidan Euskaltzaindian gero eta dei gehiago jasotzen zituztela, euren abizenaz galdetzen zuen jendearenak".

Eguen arratsaldean, ikertzaile gazteek hartuko dute hitza, eta lau proiektu aurkeztuko dituzte, horiek ere oso gai bariatuez: Limako espiritua; Bolivar 1801-1802 urteetan; Euskal ordezkaritzak Ameriketan; eta Bizkaitarrak Gortean Jaurgoa zerbitzatzen.

Arrasaten izango diren adituez gain, teknologia berrien bitartez, lau bat bideo-konferentzia egingo dituzte: bihar, martitzena, Argentinako bi lagunekin konexioa egingo dute euskaldunok Ameriketako prentsan duten presentziaren gaineko mahaian; etzi, eguaztena, Oscar Alvarez Gila EHUko irakasleak Txekiar Errepublikatik egingo du bat mintegiarekin; eta eguenean, Patricio Legarragak, Txiletik.

**"EGITARAU ONA ANTOLATU DUGU"**

Jon Ander Ramos antolatzaileak joan den egubakoitzean Arrasate Irratian esan zuen antolatzaileak "pozik" daudela, nahiz eta krisiak eragina izan duen: "Daukagun aurrekontuarekin, ez da hain erraza jendea batzea eta arlo honetan dabiltzanak beste zeregin batzuetan egoten dira. Baina gustura gaude, egitarau ona antolatu dugu eta espero dugu dena ondo irtetea". Bestalde, helburu nagusia ere beteko da: ikerketa berriak plazaratzea.

Beste lorpen bat da mintegi hori Arrasatera ekarri izana; aurretik, Gasteizen (lehenengo hiru edizioak), Montevideon, Baionan eta Kalifornian egin zen. Baionan jaso zuten lekukoa Jon Ander Ramos eta Ana Isabel Ugalde arrasatearrek.

**EKONOMIA** > EPAIA

## Natra Zahorri 200.788 euro zor diote kalte-ordainetan

Azukrearen prezioa igo izanagatik, zigorra ezarri diote Acor azukregintza enpresari

**L.K.** > OÑATI

Oñatiko Natra Zahor txokolate enpresari 200.788 euroko kalteordaina eman beharko dio Valladolideko Acor Nekazaritza eta Abeltzaintzako Elkarte Kooperatibo Orokorrak, 1995 eta 1996 artean azukrearen prezioa kiloko 0,02 euro igo izanagatik. Valladolideko Entzutegiak aintzat hartu du gozogintzako bederatzi ekoizlek Acorren aurka ipini zuten salaketa, eta Acorri ezarri dio 1,2 milioiko kalte-ordaina gehi 14 urteotan pilatutako lege-interesak eta epaitegiko kostuak, dena ordaintzea.

**EPAI AITZINDARIA**

Epaiak dioenez, Acorrek, Ebro Espainiako Azukregintza Elkarteak eta Jaengo Azukregile Elkarteak enpresei saltzeko azukrearen prezioa adostu zuten. Estatuan lehenengo aldiz ematen diote arrazoia epaitegiek elikadura arloko kartel batek kaltetutakoei.

**EKONOMIA** > KRISIA

## Fagor Ederlan Tafallako EREa gaitzetsi dute

Luzuriaga zenak bazkide ez diren 124 langile kaleratzeko asmoa dauka

**L.K.** > ARRASATE

Mondragon Korporazioko Fagor Ederlan Tafallako enpresa-batzordeko gehiengoa zuzendaritzak aurkeztu duen EREaren aurka azaldu da. Hala, 21 ordezkaritik zortzi dituen LAB sindikatuak esan du "akordioa" bilatuko duela alde guztien artean, kaleratzerik egon ez dadin; bigarren indarrak, UGTk (bost ordezkari) esan du ez duela "kaleratze traumatiko bat bera ere" onartuko.

**BAZKIDE EZ DIRENEI**

Batzorde Errektoreak 124 lanpostu kentzeko EREa aurkeztu du Lan Ordezkaritzan, horrela "ekoizpena eskaerei egokitzeko". Kooperatibista ez diren 231 langileen artean izango dira kaleratze horiek. Langile horiez gain, 401 bazkide kooperatibista ditu Fagor Ederlan Tafallak, Luzuriaga zenak.

> EKONOMIA

### Langabeendako 421 euroko neurriak indarrean segituko du

Espainiako Gobernuak erabaki du langabeendako onartu zuen 421 euroko subsidioa "data mugarik gabe" ematen jarraitzea; hau da, neurri horrek indarrean jarraituko du eta eskatzeko aukera izango dute baldintzak betetzen dituztenek. Horrek ez du esan nahi mugagabea denik norberarendako: onuradun bakoitzak sei hilean jaso ahal izango du laguntza.

Langabezia prestazioak bukatu zaizkien eta lanbide arteko gutxieneko soldataren %75era ailegatzen ez diren familia-errentak dituztenen langabeendako da laguntza.

auzorik auzo

**ALDAIEGIA** > Bergarako Labegaraietan hasi eta Angiozarren amaitzen den bidearen erdi inguruan dago Aldaiegia auzoa. San Kristobal bezala ere ezaguna da, izen bereko ermita dagoelako auzoan.

**Alex Alberdi** > Aldaiegiako auzo-alkatea

# "Ermita aurrealdea berritu eta aparkalekuak egokitzea aproposa izango litzateke"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Elosukoa jaiotzez, Aldaiegian bizi da azkeneko urteotan Alex Alberdi. Sei urtez dabil auzo-alkate lanetan. Azkenaldian izan duten arazo nagusienak AHTren lanen ingurukoak direla azaldu digu.**



Alex Alberdi, San Kristobal ermitaren aurrealdean. A.E.

**Bikote gazte asko dago auzoan; hortaz, biztanleria arazorik ez duzue izango?**

Auzoan 25 baserri inguru daude eta baten izan ezik, beste guztietan bizi da familiaren bat. Jende gazte asko dago, eta haur batzuk ere jaio dira azkenaldian. Hortaz, alde horretatik ez dugu arazorik. Gaur egun 80 pertsona inguru bizi gara Aldaiegian; alde horretatik, ez dugu arazorik.

**Ermitaren inguruan lan batzuk egitekotan zinetela, konturatu zarete ermita ez dela auzoarena. Zer gertatu da?**

Bai, hala da. Guk uste genuen ermita auzoarena zela; baina, lan batzuk egitekotan ginela, konturatu ginen ermita San Pedro elizarena dela, ez auzoarena.

Paper batzuetan aurkitu dugu 1800. urte inguruan auzoak ermita erosi zuela; hortaz, gure baimen barik kendu digute orain. Gertatzen dena da ermita bi pertsonaren izenean jarri zutela eta orain, haien oinordekoak zeintzuk diren bilatzen hasi beharko genukeela.

**Uste duzue konponbidea izan daitekeela lagapena egitea?**

Guk nahiko genukeena da Gotzaindegiak lagapena egitea auzoari; adibidez, 100 urtekoa. Izan ere, ermita aurreko plazatxoa berritu beharra dago; eta ondo egongo litzateke aparkaleku txiki bat egitea plazatxo ondoan. Ermita Gotzaindegiarena den bitartean, ez dut uste hemen dirurik gastatuko dutenik.

**Beste arazo nagusi bat AHT da. Nola eragingo du trenak auzoan?**

Auzotik pasatuko da, Angiozar eta Antzuola arteko zatian. Trena pasatuko den lurren jabe guztien artean elkarte bat sortu dugu. Hasierako trazatuaren inguruan kexatu egin ginen; eta trazatua aldatu egin zuten. Oraindik ez dira hasi lanekin, baina lanak hasten direnean nahiko arazo izango ditugu zaratarekin; eta, baita gero ere, trenarekin.

**Egunerokotasunean, baduzue beste arazorik?**

Telebista, adibidez, ez da ondo ikusten. Eguraldiaren arabera izaten da: batzuetan kate batzuk ez dira ikusten eta beste batzuetan beste batzuk. Nahiko ezkutuan eta sakonean dago auzoa eta horregatik izaten ditugu arazo horiek.

**Noiz ospatzen dituzue jaiak eta zer egiten duzue?**

San Kristobal eguna uztailaren 10ean da, eta jaiak aste bukaeran egiten ditugu. Normalean, larunbatean erromeria egiten dugu, eta baita meza, luncha eta herri kirolak ere.

**Euskal Herriko ohitura berezi bi gordetzen dituzue auzoan: hileta-eroateetan baserri guztietako ordezkariek parte hartzen duzue eta San Kristobal eguneko segizioa.**

Gaur egun ez dira tradizio horiek mantentzen. Gertatzen dena da auzotar guztiak elkartzen garela hiletetan. Bestalde, hil eta hurrengo domekan elizkizuna egiten dugu auzoko ermitan.

**Ikusteko zer dago auzoan?**

Ermitatik gertu interes arkitektonikoa duten baserriak daude: adibidez, Eduegia baserria, leinu-etxea dena. Baita Gaztelugoikoa eta Askarruntz ere.

SAN KRISTOBAL

## Belarriko minaren aurkako santua da San Kristobal

San Kristobal ermita XVI. mendeko eraikina da, nabe bakarrekoa. Aldare nagusian San Kristobalen irudia dago, tamaina handikoa. Ermita oso ezaguna da ohiturako jaiengatik eta mendetan zehar belarriak eta beste sendatzeko joaten zen jendearengatik. "Sasoi batean txoferrak etortzen ziren ermitara kamioiak bedeinkatzera", adierazi digu Alberdik.

Taxi gidariak eta auto berria erosten dutenak ere igotzen dira haraino, santuak bedeinkapena eman diezaien. "Belarriko minaren aurkako santua ere bada, eta etortzen da jendea", dio.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

LIBURUA

Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

KAMISETA

Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

MP3 BAT

Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Librezale.org euskara informatikaren munduan bultzatzea helburu duen lantalde irekia da, plaza irekia, eta horrekin batera software librearen alde egiten dute. Software librea eskuratu ondoren, erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu egin daitekeen softwarea da. Hain zuzen, Microsoft moduko multinazionalek dituzten interesekin talka egiten duen mugimendua.

**Ander Elortondo** > Librezale.org-eko kidea

# "Animatu software librea erabiltzera; errazagoa da, eta euskaldunagoa"


Ander Elortondo, ordenagailu aurrean, Mankomunitateko bulegoan. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

**Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan hartu gaitu Ander Elortondok (Arrasate, 1969). Librezale.org taldeko kide da Elortondo, eta talde horren gainean eta oro-korrean software librearen gainean egin dugu berba. Mankomunitatean hasi dira software librearekin lanean.**

**Software librearen defendatzailea da Librezale.org taldea, eta bertako kide zara. Has gaitezen Librezale.org taldea zer den azaltzen.**

Norbaitek ondo azaldu zuen moduan, Librezale.org plaza ireki bat da, eta plaza horretan euskaltzale asko batzen gara informatikaren eta teknologia berrien inguruan euskara bultzatzeko.

**Software librearen aldekoak zarete. Ze ezaugarri bete behar ditu software batek libre izateko?**

Wikipediak dio software libreak hurrengo lau eskubide hauek betetzen dituela: helburua edozein dela ere exekutatu ahal izatea; aztertu eta aldatu ahal izatea; kopiatu eta hobetu ahal izatea; eta hobekuntza horiek publiko egin ahal izatea, komunitatearen onurarako.

**Eta zergatik egon software librearen alde?**

Software librea balio etiko batzuetan oinarritzen den elkarlan bide bat da, egiten diren aurrerapenak elkarbanatzeko asmoa duena. Alde teknologikotik ere badu bere arrazoia, frogatuta dagoelako elkarlanean egiten diren garapenak hobeak eta azkarragoak direla. Softwarearen kodeak mundu osoak eskuragarri baditu, mundu osoak egin dezake akatsak bilatzeko ahalegina eta errazago egiten dira hobekuntzak. Eta azkenik, euskaldun garen neurrian ere garrantzitsua da software librearen alde egiteko.

**Zergatik?**

Euskaldunok ez gara nahikoa masa kritiko programa informatikoak egiten dituzten multinazionalei euren lanak euskaraz egiteko eskatzeko. Inongo enpresa multinazionalek ez du egingo gogoz horrelako lanik. Eta, dirulaguntza bidez programa hori euskarara itzuliz gero, software pribatua den neurrian, itzulpen horren jabetza programan txertatzen da eta programaren jabea geratzen da itzulpen horren jabetzarekin. Eta horrek ez dio euskarari zabalkunderik ematen.

**Eta adibide bera software librean erabiliz gero?**

Software librean kodea elkar banatu egiten denez, programa horretan egiten diren hobekuntza edo itzulpenak atzetik datorrenak ere jasoko ditu, eta, neurri berean, itzulpen horiek erabilgarri izango dira beste software batean. Hala, lehen esan dugun arrazoi teknologikoari esker, software libreak sustatzen du elkarlana, elkarbanatzea, zabalkunde askoz ere azkarragoa, eta baita hobea ere.

**Software horien itzulpenak berrerabili egiten direla aipatu duzu.**

Hori da. Adibidez, Gnome, openoffice.org eta Firefox programak itzulita daude euskarara eta gaur egun badaude programa informatikoak itzulpen memoriak kudeatzen dituztenak.

EUSKARA

**"Euskarak etorkizunean teknologia berrietan presentzia izateko software librearen beharra du; pribatutik ez du aukerarik"**

ERABILERA

**"Software librera pasatzeak ahalegina eskatzen du hasieran, baina Windows erabiltzea baino errazagoa da"**

Hala, nik gaur programa berri bat itzuli behar badut, aurretik eginda dauden itzulpen guztiak kargatu egingo ditut ordenagailuan eta termino berdinak dituzten berbak programak automatikoki itzuliko ditu. Lan mordoa aurreratzen da horrela, eta, aurreko itzulpenak ondo eginda badaude, bermatzen gabiltza programa berriaren itzulpena ere ondo egongo dela.

**Geroago eta gehiago dira software librearen alde daudenak, eta hura erabiltzen dutenak.**

Bai, olatua geroago eta handiagoa da; besteak beste, jendea lehen aipatutako balio etikoen alde dagoelako. Horren adibide da Jaurlaritzak Eskola 2.0 programa abian jarri duenean egin duen apustua. Gazteek hartu behar dituzten ordenagailu eramangarriak Windows programarekin zetozen, baina software librearen aldeko mugimenduak lortu egin du hori aldatzea.

**Gainera, gazte horiek hasieratik ohituko dira software librekin lan egiten.**

Bai, baina hor badago uste bat ez dena zuzena; alegia, software librea erabiltzea zailagoa dela; eta hori ez da horrela. Aldaketa guztiek ahalegin bat eskatzen dute, bistakoa da hori.

Egin diren azterketek erakusten dute errazagoa dela Linux (software librea) erabiltzea Windows erabiltzea baino. Garapen bidean dauden lurraldeetara joan eta gazteei Linux eta Windows sistema eragileak dituzten ordenagailuak eman dizkiete, eta umeak errazago ibili dira Linuxekin. Eta ahaztu birusak, ordenagailua blokeatzea... Erabiltzaileen %90endako hobe da software libredun ordenagailuak erabiltzea, pribatudunak baino.

**Batzuek esaten dute hainbat programa ez daudela software librean.**

Erabiltzaileen %90ek ordenagailua erabiltzen dute Interneten ibiltzeko, posta erabiltzeko, ofimatika programekin jarduteko eta norberak egindako argazkiak kudeatzeko. Horiek errazago eta hobeto egiten dira Linuxen Windowsen baino. Autocad erabili nahi duenak, medikuntzako ez dakit ze programa... baliteke horiendako Linux ez izatea aproposena, ados, baina gutxiengoa dira.

Gainera, askotan behar ez ditugun programen baliokideak nahi izaten ditugu software librean, beste programa batzuk aproposagoak direnean. Adibidez, argazkietan oinarrizko ukituak egin eta gure albumak osatzeko ez dugu Photoshop behar.

**Esandako moduan, baina, aldatzeko ahalegina egin behar da.**

Bai, baina hori ere polikipoliki egin behar da, migrazioa ez dadila buruhauste bilakatu. Lehenengo egin daitekeena da Windows barruan software libreko programak erabili. Ondoren, sistema eragile moduan ordenagailuak aukera ematen du Windows eta Linux batera instalatzeko, eta guk aukera dezakegu egun batean bata edo bestea erabili. Eta, Windowsen beharrik ez daukagula ikusten dugunean, Linux bakarrik erabili.


Kutxa Gordailu Hobaritua
Zenbat eta kutxakoagoa izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.
Urteak igaro ahala harremanak hobeak, baita zure eta kutxaren artean ere. Horregatik, zure leialtasuna eskertzeko, eta ez hitzez bakarrik, Kutxa Gordailu Hobaritua eskaintzen dizugu. Gordailu honekin, zenbat eta gure produktu gehiago izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.
Zatoz eta galdetu. Irabazian aterako zara.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Zer iruditzen zaizu erakundeetako ordezkari politikoek ze ondare duten publiko egitea?



**Jose Ramon Gustino**
Langilea
Soraluze

Bikain iruditzen zait. Kontrolatuago egon beharko lirateke, lapurretak saihesteko. Ondo dago jakitea postua hartu aurretik ze ondare zuten. Aberats asko dago eta prekarietate asko ere bai gizartean.



**Mari Carmen Gonzalez**
Langilea
Barañain

Oso ondo iruditzen zait. Eurek badakite ba guk ze ondare dugun! Gu moduko herritarrak dira. Postua hartzerakoan ikusi beharko litzateke ze ondare duten, eta gero berriz ere uzten dutenean. Horrela behar luke.



**Migel Angel Iñurrieta**
Langabea
Arrasate

Ez zait gaizki iruditzen ordezkari politikoek publiko egitea ze ondare duten. Denek egin beharko lukete. Dena dela, konfiantza eduki beharko ordezkari politikoetan, ezta? Sagar ustelak non nahi daude.



**Karmen Arizmendi**
Langilea
Bergara

Ondo iruditzen zait publiko egitea. Ardura postuetan dauden denena jakin beharko genuke. Nik uste, batzuk behintzat euren poltsikoagatik daudela hor. Ez dut konfiantza askorik politikariengan.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Usaina zabor ontzietatik**

Zubiaurre kaleko bizilagun batek deitu digu esanaz, hango plazatxoan sekulako kiratsa egoten dela. "Jende asko joaten da arratsalde pasa: adinekoak, umeak gurasoekin... eta plazako bankuetan egoten dira, baina batzuetan ezin da han egon ondoan dauden zabor ontziek botatzen duten kiratsarengatik", esan digu. Horren aurrean konponbide bat eskatzen du auzotar horrek, baita proposamen bat egin ere: "Udalak astean behin garbitzea zabor ontziak, zergak herritar denok ordaintzen ditugu-eta".

ANTZUOLA
**> Autobus ordutegirik ez**

Asteon Antzuolatik Bergararako bidaia autobusez egin duen irakurle batek kexa azaldu du autobus geltokian ordutegirik ez dagoelako. "Udaletxera ere joan nintzen eta sarrerako arkupeetan ordutegia ipinita egon arren, ordutegiko paper zati bat falta zen, kasualitatez nik behar nuena. Bergarako geltokian ere hainbat ordutegi ez dira zehatzak eta beste batzuk falta dira", esan digu.

ARETXABALETA
**> Kanpai hotsa ozen**

Aretxabaletako bizilagun batek deitu digu elizako kanpaien soinua oso ozena dela-eta bere haserrea azalduz. "Aretxabaletako elizatik nahiko gertu bizi gara eta kanpaien hotsa izugarri handia da. Jakin nahi dut ea ezin den bolumena jaitsi" dio irakurle honek.

## usteak uste

**Julen Iriondo**

# Euskadi, atzera doan Herria

Eusko Jaurlaritzaren eskuorri bat jaso dut astean, eta atentzioa deitu dit. "Aldaketa" hitzetik hortzera darabilen Gobernuak lehengoaren lelo berarekin jarraitzen du: "Euskadi, aurrera doan Herria".

Hau ere aldatu zezaketen: aurrera barik, atzera. Badira hau arrazoitzeko adibide gehiago eta garbiagoak, baina astean entzundako batek eman dit zer pentsa.

Aurrekariak ere ez ziren onak: duela hilabete batzuk Euskadi Gazteakoek Mikel Erentxuni eta Amaia Monterori enkargatu zioten *Lau teilatu* kantu enblematikoa bertsionatzeko. Hauek jarri behar al ditugu euskal gazteentzat gure kantagintzaren erreferente?

Astean, berriz, Chenoari egin diote elkarrizketa Radio Euskadin, "Euskadiko" irratian, erdarazkoan. Beste pauso bat, atzera. Hurrena? Belen Esteban txutxu-mutxu saioa aurkezten ETB 2-n.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Blokeoa

"Gatazkari irtenbide demokratikoa' bilatzeko eskaera. Sindikatuek manifestazioaren balorazio 'positiboa' eta gizarteak 'erantzun paregabea' eman du. 'Gizarteak blokeo egoeran subjektu pasibo izateko prest ez' dagoela argi utzi du. 'Halako ekimenak eskatzen ditu gizarteak', ELA eta LABen iritzia".

Berria > 2009-10-18


berria
Irtenbide demokratikoa aldarrikatu dute milaka manifestarik Donostian
Beñat Gaztelumendik irabazi du Uztaritzen, saio bikaina eginda

Ostiralean konturatu nintzen aste osoan Kiss FM izan nuela ipinita autoko irratian. Kezkatu egin nintzen. Albistegiz albistegi, tertuliaz tertulia dialean saltoka gogoratzen dut nire burua automobila daukadanetik. Ni bakarrik autoan albistegiak komentatzen, tertuliakideei erantzuten. Azkenaldian, baina, igartzen nuen aktualitatearekin aspertzen hasita nengoela, irratigileen komentarioekin bete samar somatzen nuela nire burua. Eta Kiss FM herriaren opiora aldatu nuen. Eta astebete iraun 80ko hamarkadako disko-musika entzuten, berriekin kezkatu barik. Jabetu naizenean ostera kezkatuta geratu naiz, nirbana hori desiatzera zerk eraman ote nauen asmatu ezinik.

Zapatuko manifestazioan aipatzen zenaren kontra, blokeo egoerak subjetu pasibo izatera eraman al nau? Diagnosia ez legoke hortik urruti. Gertuko zaizkit gizartearen kezka politiko nahiz sozialak. Herrian egoera normal bizi nahi dut, zeinetan guztiek pentsatzen dutena adierazi baitezaketen, zeinetan herritar guztiek ekimen politikoa izan baitezaketen. Gauza publikoan parte hartu, eztabaidatu, erribindikatu, iritzia eman. Jardun politikoa oinarrizko eskubide moduan. Zentzubakotasunaren indarrak zapaldu barikoa, ez kartzela dakarten legeen bitartez, ez herriaren izena alperrik hartuta sasi-babesle armatuen mehatxuen bitartez. Auzolanean jardungo duen gizartea nahi dut, ez poltsiko beteko alderdikeriatan, ez azaleko ongikeriatan, ezta odolezko morrontzatan. Izateko modua erabakitzeko eta eztabaidatzeko oinarrizko eskubidea izango duen gizarte bat.

> **"Erabaki eta eztabaidatzeko eskubidea izan behar du herriak"**
>
> **"Lozorroan geratzeko joera handia ikusten dut"**

Larunbateko manifestazioa izan daiteke gizartearen ukabilkada mahai gainean, "mota honetako ekimenak dira gizarteak eskatzen dituenak" zioten. Bukatutakoan halere norbera bere elkartera, eta lehengo lepotik burua. Zerbait egin beharra daukat, gero eta joera handiagoa ikusten dut lozorroan geratzeko. Garbi ez daukadana da zergatik murgildu nintzen apatian: azken albistegiak entzuten nituelako ala entzuteari utzi niolako. Larri nago, ez baitakit hurrengoa Disney Channelera engantxatzea izango den, ala zuzenean kalera irten eta Disney herrian nagoela irudituko ote zaidan.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jon Berezibar, Julen Iriondo, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati> 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



**> ARRASATE**
Ikutixo eremuan ezin izango da ezer eraiki, Udalak hala erabaki berri duelako > 14



**> BERGARA**
Labegaraietaraino iritsiko da Jardunen jolasleku ibiltaria datorren egubakoitzean > 16



**> ESKORIATZA**
Eskohitzak webgune berria estreinatu eta bide batez sare sozialetara salto egin du > 19



Argentinako Elkartasun Taldeko boluntarioak Bidebarrietako lokalean materiala sailkatzen. MIREIA BIKUÑA



Argentinara bidaltzeko edukiontzia gertu fumigatzaileen ostean. J. A. URTEAGA

**OÑATI** > JENDARTEA

# Argentinara 25. edukiontzia bidaliko du elkartasun taldeak GKE moduan

**MATERIALA**
Bidebarrietan arropa, botikak, ordenagailuak, jostailuak, liburuak... jasotzen dituzte

**DIRULAGUNTZA**
Gobernuz Kanpoko Erakunde izaera hartu dute laguntza gehiago lortu asmoz

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Oñatirekin senidetutako herria da Argentinako Jose C. Paz. Han zegoen pobrezia egoeraz eta beharraz ohartuta, orain dela zortzi urte oñatiar batzuek laguntza jasotzeko eta bidaltzeko taldea sortu zuten. Orain, taldeari Gobernuz Kanpoko Erakunde izaera eman diote euren jarduera lehengo bera izan arren.

"Baliabide handirik gabe hasi ginen gauzak batzen Maribel Elortzaren etxean, bere birraitona Jose Vicente Altube zen-eta Jose C. Paz herriaren fundatzailea. Gero, Agustinoetara pasa eta han eratu zen orain lanean dihardugun taldea. Gaur egun Bidebarrietan dugu lokala", esan digu Jose Antonio Urteaga elkarteko kideak.

**EDUKIONTZI ZURIA**

Lokalaren parean dagoen edukiontzian askotariko materiala jasotzen dute. Urteagak esan digunez, "batzen ditugu arropak, oinetakoak, jostailuak, liburuak, botikak, ordenagailuak… enpresetatik ematen dizkiguten pinturak, oihalak… Jasotakoa sailkatu, paketatu eta edukiontzi handietan hiru edo lau hilabetean behin bidaltzen dugu. Bidali berri dugu 25.a". Jendearen erantzuna oso ona da: "Edukiontzira ez ezik lokalera ere ekartzen dizkigute gauzak.

Herritarren laguntzaz gain, Udala da euren babesle nagusia. Ulmaren babesa ere jasotzen dute; han kargatzen baitituzte edukiontziak, eta kaxak eta bilgarriak ere hangoak dira. Horietaz gain, Zahor, Covinor, Fagor Industrial edo Irizar moduko enpresek ere ematen dute laguntza, baita eskolek ere. "Oñatirekin senidetutako Frantziako Chateaubernard herritik ere urtero bidaltzen digute kamioi bat generoz beteta. Lagun zerrenda oso luzea da", dio Urteagak.

Edukiontzia Jose C.Paz-era bidali eta han bi lote egiten dira eta banaketaren zati bat Euskal Etxeak egiten du zentroetan, jantokietan… Bestea, berriz, San Jose Providentek, Argentinan euren proiektuaren ardura duenak, banatzen du. "%20 bidaltzen dugu Jujui-ra; iparraldera. Han Agustinoak daude, tartean Luis Arregi oñatiarra eta eurek modu egokian egiten dute banaketa Caritaserako, kartzeletarako, behartsuendako, indigenendako…", esan digu Urteagak.

**GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA**

Laguntza talde bat izatetik Gobernuz kanpoko erakundea eratzera pasa dira elkartasun taldekoak. "Esku artean dauzkagu hiru proiektu eta orain jasotzen duguna baino laguntza ekonomiko gehiago behar dugunez, Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara jotzeko beharrezkoa zen Gobernuz Kanpoko Erakunde moduan eratzea", azaldu digute.

Hiru proiektuok dira batetik San Jose Providenten tailer berriak, etxeak eta kiroldegia egitea; elbarriendako zentro batean egoitza egitea adineko elbarriendako; eta elbarriendako egoitza eta granja bateratzen dituen etxean berrikuntzak egitea.

Orain 26. edukiontzia gertatzen gabiltza eta urtarrilean bidaltzea da asmoa. Oñatiarren laguntza asko estimatuko dute taldean eta Argentinan.

## Azaroan, oñatiarren artean bazkide kanpaina egiteko asmoa dute dirua jasotzeko

Orain arte taldean dihardutenak bazkide dira, baina nahi dute kuota bat ordainduz herriko jendeak eurei diruz laguntzea. Horretarako, datorren hilean kanpaina egingo dute. "Horrela, nahi genuke beste erakundeetatik mendekotasun txikiagoa izatea. Herriko proiektua izanik, espero dugu laguntza apur bat lortzea", esan digu erakundeko Juan Antonio Urteagak. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete Makalenakoei eta herritarrei jaietako antzerkiaren ostean, dirua jasotzearren eta ematearren.

Lanerako taldea nahiko osatua dute, baina Urteagaren esanetan, "pare bat lagun gehiago etorriko balira ere eskertuko genuke, are gehiago, administrazio eta finantza lanetarako gertu egongo den norbait etorriz gero. Baina oraingoz bazkide kanpaina egitea da esku artean duten asmoa".

**BERGARA** > OMENALDIA

# Pelloren lan altruista eskertu zuten talde askotako bergararrek



Kontzertu ostean, Aritzetakoen eta barril-joleen oroigarriekin. JOSETXO ARANTZABAL



Pello, emazte Arantxa eta bilobekin Lokatzakoen babesean. IRATI AGIRREAZALDEGI



Xamatz dantzari taldekoekin, tartean semeak eta errainak. I. A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Pello Garitanoren alde txirrindu zalea, kantu zalea, lagun artekoa, borondatetsua... ezagunak dira Bergaran, baina domekan Pellok bere alderdi sentibera utzi zuen agerian. Herriko elkarteei lagunduz egindako lan altruista eskertu nahi izan zioten bergararrek egunerako propio gertatutako zapiak lepoan zituztela.

Domeka goizean, Labegaraietako eliza txiki geratu zen Pelloren lagun, ezagun, senide, bergarar eta kanpokoak hartzeko.

Meza ostean, Lokatza txirrindulari taldekoek bizikleta gurpilen eta Xamatzeko dantzarien arku eta ezpaten artetik pasa eta zain zituen hiru seme eta hiru errain agurra dantzatzeko. Orduan korapilatu zitzaion eztarria Pellori eta egun osoan emozio malkoei eutsi ezinda egon zen.

**KONTZERTUAN HUNKITUTA**

Labegaraietatik frontoira, han zain zeukan saio berezia, bandako kontzertuaren bigarren zatia beretzat propio gertatua zen-eta. Aritzeta abesbatzakoak eta danborradako barril joleak han ikusteak ere asko hunkitu zuen Pello, eta eskerrak emateko hitz gutxi batzuk baino ez zitzaizkion atera mikrofonora gerturatuta.

Trikitilariekin poteoa egin eta bazkaritan 500 lagun izan ziren frontoian. Han ere ez zen oparirik falta izan, 20tik gora taldek saritu zuten-eta.

Muxu, besarkada eta zorion hitzen artean eman zuen eguna eta berari eskerrak emateko egindakoa gehiegizkoa iruditu zaion arren, aurrera ere "hankak sano dauden bitartean" lanean jarraituko duela esan zigun.

**ELGETA** > ARGAZKILARITZA

# Erlantz Untzetabarrenetxeak irabazi du argazki lehiaketa

Guztira bederatzi parte hartzaile izan dira eta euren argazkiak Elgetako tabernetan ipiniko dituzte asteon jendeak ikusteko




Argazki lehiaketako sariduna argazkiak atzean dituela. J.A.

**I. A.** > ELGETA

*Elgetaklik* argazki lehiaketako lanak jaso eta epaitu ostean, domekan jaso zituzten sariak lehenengo hiru argazkilariek.

"Elgetako zure txokorik maiteenak" zen lehiaketarako gaia eta guztira bederatzi parte-hartzaileren lanak jaso dituzte.

Julio Calleja argazkilaria zen epailea eta Josetxo Arantzabalen laguntzaz aukeratu ditu hiru lanik onenak: Erlantz Untzetabarrenetxearen *Beizuko bidea*, Gorka Guridiren *Mendiak elurretan* eta Nerea Arantzetaren *Hostuak farola artian*. Ikatz argazki dendetan gastatzeko 150, 100 eta 75 euroko bonoak jaso dituzte hurrenez hurren. Bestalde, aipamen berezia jaso gu Xabi Zabalak.

Argazkiak plazan izan ziren jendaurrean domekan, eta asteon tabernetan ipiniko dituzte.

Antolatzaileek nahi dute hurrengorako jende gehiago anima dadin lanak aurkeztera.



JOSETXO ARANTZABAL

**ELGETA** > GASTRONOMIA

## Pintxorik onena, Patxi tabernakoa

Herriko tabernariei bultzada eman nahian, Udalak antolatutako pintxo lehiaketako sariak domekan banatu zituzten. Zazpi taberna ziren parte hartzekoak, baina gaizki ulertu batengatik sei izan ziren. Lan handia egin dute tabernariek eta borondatea jarriz, pintxo originalak aurkeztu zituzten. Patxi tabernakoek jaso zuten txapela honako hiru pintxoekin: Porru muselina urdaiazpiko karraskariarekin bakailaoa ajoarriero erara porru melatuarekin eta masail brika onddo saltsarekin. Pozik ziren txapeldunak, irabazteaz gain pintxo guztiak saldu zituztelako. Tabernetan euro batean probatu ahal izan ziren pintxoak.


Neskatoak harro, batutako ale ederrekin. J.B.


Mikologia elkartekoek zapatuan lagundu zieten sailkatzen. J.B.


150 espezietik gora sailkatu zituzten. J.B.

**ESKORIATZA** > PERRETXIKO BATZEA

# 150 espezietik gora batu dituzte Marieta inguruan

Perretxiko batzea eta erakusketa antolatu zuten asteburuko Luis Ezeizako gurasoek

**J.B.** > ESKORIATZA

Perretxiko festa galanta izan duten eskoriatzarrek asteburuan. Luis Ezeizako neska-mutikoen lan txukunak ekarri zuen, baina, festa. Guraso elkarteak zapatuan Marieta aldean txangoa antolatu zuen 30 bat neska mutikorekin eta gurasoen laguntzarekin 154 espezie inguru batu zituzten. Arratsaldean elkartu eta Errotari mikologia elkartekoen laguntzarekin goizean batutako aleak sailkatu eta ezagutzeko aukera izan zuten Eskoriatzako txikitxoek. Denetarik aurkitu zuten, jangarri, pozoitsu edo ale arraroren bat edo beste. Aurten onddo asko dago eta horiek ere ugari ikusi ahal izan ziren domekan plazan ipini zuten erakusketan. Arrakasta, beraz, neska-mutikoak fin ibili zirelako; baina arrakasta ere atzoko erakusketan, herritar ugari gerturatu zelako, Guraso Elkarteko Imanol Andetxagak azaltzen duenez. Gainera, herriko zaletuek euren ekarpena ere egiteko aukera izan zuten atzoko erakusketara; eta, horrela, perretxiko ikuskizuna izan zen plazan erakusgai egon zena atzokoan, trufa eta guzti etorri zen bat edo beste erakusketara-eta.

**IKASTEA HELBURUA**

Hori guztia helburu didaktiko batekin antolatu zuten, hau da, txikienek perretxikoen zaletasuna gertutik ezagutzea.

**ESKORIATZA** > EZKURTXO EGUNA

# Ezkurtxorekin historia ezagutu eta jolastu zuten Mendiolan

Aurten ezagutu duten elizatea Mendiola izan zuten eta hango parajeetan egin zuten Eskoriatzako neska-mutikoek egun-pasa zapatuan


Madinabeitia neska-mutikoei azalpenak ematen.. EDURNE ERZE


Ezkurtxo txikitxoekin jolasean. EDURNE ERZE

**JON BEREZIBAR** > ESKORIATZA

Jolas, kontu-zahar eta txokolate artean igaro zuten zapatuko eguna Eskoriatzako neska-mutikoek Ezkurtxo Egunean. Urterourtero herriko elizate bat ezagutzeko aukera izaten dute egun horretan eta aurten Mendiolara egin dute txangoa.

**AUZOKO HISTORIA**

Sei talde antolatu zituzten, 2tik 10 urtera bitarteko neska-mutikoekin osatutakoak. Arizmendi ikastolako Jose Arana eta Almen guneetatik antolatu badute ere, eskoriatzar gaztetxo guztiak zeuden gonbidatuta. Hala, Mendiola inguruko paraje ederra ikusteaz gain, auzoaren historiaz ere jakiteko aukera izan zuten luxuzko gidari batekin. Izan ere, auzoko alkate Joxe Madinabeitia izan zuten gidari lanetan eta monolitoaren aurrean (goiko irudian) auzoa zergatik den Eskoriatzakoa eta bertakoen bizimoduaren gaineko azalpenak jaso zituzten parte-hartzaileek. Lan horretan auzoko bertako bizilagunek esku hartu zuten eta horregatik antolakuntzatik eskerrak eman gura dizkiete Madinabeitiari berari eta auzokoei, egindako harrerarengatik. Baina ikasi bakarrik ez, jolasteko aukera izan zuten neska-mutikoek antzina egiten zuten erara: txorromorro, igela, boloka. Txokolatearekin amaitu zuten egun borobila.


J.A.

**ELGETA** > PERRETXIKOAK

# Zaletuen erakusketa polita

Perretxiko zale ugari dago Elgetan eta haien lanaren erakusketa ederra izan zen atzo plazan egin zutena. Lan txukuna egin dute aurten ere, 60 bat espezie batu, sailkatu eta erakutsi zituzten. Orain dela aste batzuk hasi eta Elgeta zein Araba aldean jasotako aleekin sorta ederra osatu zuten, jangarri, hilgarri eta sukaldaritzarako baliorik ez daukatenekin. Txikienek ere izan zuten zaletzeko aukera, atzo ere Intxorta eta Asentzio aldetik txangotxoa egiteko aukera izan zuten-eta.

**ARRASATEKO UDALA**> EGITAMU OROKORRAREN ALDAKETA

# Ikutixo eremuan ezin izango da ezer eraiki, Udalak hala erabakita

## Horrek esan gura du behin betiko itxi dizkiotela ateak zabortegia eraikitzeko egitasmoari

## Bestalde, Meatzerrekako industrialdeari edozein motatako industriak erabiltzeko izaera eman diote

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ikutixo ibarra aurrerantzean lur hiritar-ezina izango da. Horrek esan gura du han ezin izango dela ezer eraiki.

Arrasateko Udalak Egitamu Orokorra aldatu du Ikutixoren izendapena aldatzeko. Orain arte eremu hiritargarri moduan zegoen klasifikatuta gune hura.

**ZABORTEGIA ETA INDUSTRIALDEA**

Are gehiago. Ikutixorako egitasmoak ere bazeuden Udalean, lehenagoko legealditik: "Mendebaleko saihesbidea eraikitzeak ekarriko duen lur betelana jasotzea eta ondoren, jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharrari aurre egingo dion esparrua sortzea"; industrialdea, bestela esanda.

Ba, esandako moduan, bertan behera geratu da hori guztiori. Bi arrazoi eman ditu Udalak.

Bata da mendebaleko saihesbideko (Olandixo) obrak hasita daudela eta hango lurrak beste nonbaitera isurtzen dabiltzala; beraz, ez dagoela Ikutixoko zabortegi beharrik.

Bestea da egoera ekonomikoa "kaskarra" dela, "jarduera guztiak moteldu" dituena; beraz, industrialde berrien beharrik ere, oraingoz, ez dute ikusten.

Ikutixo eremuaren izaera aldatzeaz gainera, "Basoaren Babesa" esparruan sartuko dute aurrerantzean.

**MEATZERREKAKO INDUSTRIALDEA**

Bestalde, aldaketa horrekin batera, beste bat ere egin du Udalak Egitamu Orokorrean. Meatzerrekako industrialdearekin dauka zerikusia. Egin duena da industrialde haren izaera aldatu eta bidea eman mota guztietako industriak kokatu ahal izateko.

**PABILOI TXIKIAK EGIN DAITEZKE**

Kontua da, indarrean zegoen araudiaren arabera, Meatzerrekako industrialdean industria bakarrak zeukala egoteko eskubidea. Baina gaur egun Civasa, OMU eta bestelako negozioak ere badaude. Horrek esan gura du ordenazioz kanpo zeudela jarduera horiek eta, berez, Meatzerrekatik joatea egokituko litzaiekeela. Horrez gainera, "industria bakan erabilerak suposatzen du esparrua azalera handia behar duen enpresa bakar batek okupatzea. Hori dela-eta, esparruak ez du garapenik izan", dio Udalak.

Orain, berriz, mota askotako industria jarduerak kokatu ahal izango dira han: "Onartzen du pabiloi txikiak egin eta hainbat enpresa kokatzea bertan".



Ikutixo eremua bere horretan utziko dute, ibartxo moduan. UBANE MADERA

**TABERNAK** > ESKAINTZA

# Realak irabaziz gero kafea erdi prezioan

## Monte, Lora Bar eta Zuk Nahi tabernek egin dute hitzordu hori

**U.M.** > ARRASATE

Realaren mendeurreneko ospakizuna bezeroekin konpartitzeko ekimen bitxia abiarazi dute Arrasateko hiru tabernak: Realak irabazten duen bakoitzean, hurrengo astelehenean kafea erdi prezioan salduko dute. Hain zuzen, "liga amaitu arte edo Reala mailaz igo arte" egingo dute hori, Juan Carlos Davilaren, Monte tabernako ugazabaren esanetan. Monte tabernarekin batera, Lora Bar eta Zuk Nahi tabernek ere parte hartuko dute eskaintza horretan.

Prezioari dagokionez, 60 zentimo kobratuko dute: "Hutsa, kafeinagabea, kafesnea, ebakia eta infusioak sartuko dira eskaintza horretan", azaldu du Davilak.

Ordutegiari dagokionez, berriz, libre izango da. Hau da, egun osoan hartu ahal izango da kafea erdi prezioan hiru taberna horietan.

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# "Polito" hasi dira saltzen Maria del Mar Bonet kantariaren kontzerturako sarrerak

## Zapatuan, urriaren 24an egingo du kontzertua Mallorcako abeslariak Amaia Udal Antzokian, 20:00etan

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Goizegi da guztiak agortzeko,baina jendea hasi da erosten Maria del Mar Bonet abeslari mallorcarraren kontzerturako sarrerak. Kultura Sailetik diotenez, "polito" dabiltza saltzen, gainera.

Edozelan ere, Amaia Udal Antzokiak 730 lagunendako lekua dauka; beraz, oraingoz, lekua egon badago. Sarrerak eros daitezke Kutxaren Internet zerbitzuan (*www.kutxa.net*), Kutxaren kutxazain automatikoetan edo Amaia Udal Antzokian bertan (antzokiko leihatila zabalik dagoenetan; adibidez, film emanaldiak daudenean).



Maria del Mar Bonet abeslaria. GOIENKARIA

**ESKUALDE ARTEKO ZIRKUITUA**

Maria del Mar Bonet (Palma, 1947) katalanez abesten duen kantari mallorcarra da. *Nova canço* izeneko mugimenduko kidea izan zen; eta, hain justu, kantu mota horretan oinarritutako kontzertua da Arrasatera ekarriko duena.

Arrasatera etorri baino lehen, Andoainen egingo du kontzertua Bonetek eta gero Pontevedrara joango da, musika taldeak trukatzeko zirkuitua eratu dute-eta Katalunia, Euskadi, Galizia eta Balear uharteen artean.

Horri esker, hainbat musika taldek 22 kontzertu egingo dituzte lau erkidego horietan. Hain justu, Maria del Mar Bonetekin batera, Marc Ayza, L'Orquestra Arab de Barcelona eta Gossos i Marc Parrot taldeek estreinatuko dute zirkuitu hori.

**'NOVA CANÇO'**

50eko hamarkadaren erdialdean Katalunian sortu zen musika mugimendua da *Nova canço*. Orohar, hizkuntzaren normalizazioaren alde eta frankismoaren kontra jo zuen. Raimon, Lluis Llach eta Joan Manuel Serrat kantariek parte hartu izan dute mugimendu horretan. Aurten, *Nova canço*-ren 50. urteurrena dabiltza ospatzen, eta horren harira dator Arrasatetik pasatuko den musikarien bira hori.

> LANA

### Musakolako erretiratu etxeko tabernaren ustiapena

Lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak Musakolako erretiratuen etxeko tabernaren harira. Taberna hura ustiatzeko lehiaketa, hain zuzen ere. Urtebeterako eskaintza da Udalak egiten duena. Interesa dutenek eskaintzak urriaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dituzte Biztanleen Arreta Zerbitzuan.

> NAGUSIAK

### Osteoporosiaren gaineko hitzaldia Uribarriko egoitzan

Osteoporosiaren sintomak arintzen laguntzeko azalpen eta gomendioak. Gai hori landuko dute Uribarriko erretiratu eta pentsiodunen egoitzan azaroaren 3an. 17:30erako egin dute hitzordua, Uribarriko egoitzako areto nagusian.

Jakinarazi dute Nazaret Zentroko kideek emango dituztela azalpenak.

**JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK** > PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

# Arrasaten geldialdi luzea egingo du Askapenaren 'Elkartasunez tour' birak

Bost egunetan zehar luzatuko diren ekitaldietara gonbidatzeaz gain, Askapenak 'Elkartasunez' manifestua sinatzera deitzen ditu arrasatearrak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Askapenak ekimen berri bat abiarazi du, eta Euskal Herri osora zabalduko da oihartzuna. Ekimenak herri palestinarrarekin elkartasuna adierazi eta Israelgo estatuaren okupazioa salatzea du helburu. *Elkartasunez tour* bataiatu duten biran, zinema, erakusketak, kontzertuak eta mahai inguruak antolatu dituzte. Esan moduan, Euskal Herriko hainbat txokotara helduko da, baina Arrasaten geldialdi luzea egingo du. Izan ere, Arrasaterako egitarau oparoa prestatu du Askapenak: bost egunetara luzatuko dira ekitaldiak.

**PALESTINAKO ZINEMA GAZTETXEAN**

Palestinan egindako zinema izango da protagonista Arrasateko jardunaldietan: bi dokumental eta film bat botako dituzte gaztetxean. Aipatzekoa da bihar ikusgai izango den *Domicilio privado* filma. Zuzendaria bera lekuko izan zen kontatzen den istorioan: Israelgo armadak etxe palestinar bat okupatu du, bertan base militar bat finkatzeko. Familiak, baina, etxean geratzea erabaki du, eta eguneroko bizitza erresistentzia borroka bihurtuko da...

Dokumentalen artean *Jenin Jenin* aipatu behar da. Mohammed Bakri aktore eta zinemagile palestinarrak 2002an Israelgo armadak Jeningo errefuxiatuen gunean egindako sarraskia islatzen du. Israelek debekatu egin zuen.

Bestalde, musika ez da faltako. Euskal Herriko musikari famatuez gain –Mikel Urdangarin eta Petti–, Palestinako Basel Zayed musikariak ere joko du, gaztetxean. Ekitaldi horietan guztietan herritarrek "Palestinarekin atxikitzeko" *Elkartasunez* deritzon manifestua sinatu ahalko dute.

KONTZERTUAK GAZTETXEAN

## Hango musika, Basel Zayeden eskutik

Egubakoitzean kontzertuak izango dira gaztetxean (22:00). Mikel Urdangarin eta Petti euskal musikariek joko duten arren, Basel Zayed musikari palestinarra izango da protagonista. Palestinako musika zuzenean entzuteko aukera emango digu bere herrian aski ezaguna den artistak. Musika arabiarra egiten duen Turab taldearen sortzailea izan zen.

Sarrerari ez diote preziorik jarri; gaztetxera gerturatzen denak borondatea jarri beharko du.

## 'Elkartasunez tour', Arrasaten

**26, astelehena**
**18:30** *Children of fire* izeneko dokumentala, gaztetxean
Mai Masri zinemagilearen lana, Nablusera itzultzea erabaki zueneko irudiez osatua.

**27, martitzena**
**18:30** *Domicilio privado* filma, gaztetxean. Israelgo armadak etxe palestinar bat okupatu du, base militarra jartzeko. Familiak, etxean segitzea erabaki du.

**28, eguaztena**
**18:30** *Jenin, Jenin* dokumentala, gaztetxean. Mohammed Bakriren lana, 2002an Israelgo armadak Jeningo errefuxiatuen gunean egindako sarraskia jasotzen du.

**29, eguena**
**18:30** *Palestina eta elkartasunez* manifestuaren inguruko mahai-ingurua, gaztetxean

**30, egubakoitza**
**22:00** Kontzertuak gaztetxean: Mikel Urdangarin, Petti eta Basel Zayed musikari palestinarra

**Iratxe Aranburu** > Arrasateko kirol teknikaria

# "Azken urteetan ahalegin handia egin da kirol zerbitzuan, eta herriak sumatu du"

**J.B.** > ARRASATE

**Urtebetez bajan egon ostean, lanez lepo itzuli da Musakolako kiroldegira Iratxe Aranburu (Zarautz, 1976). Itzuli denean, "lan martxa bera" sumatu duela dio; hori bai, galdutako martxari heltzea ez da erraza izaten. Aukearen kirol eskaintzez egin dugu berba Aranbururekin.**

**Zein izan zen lana urtebetez uztearen arrazoia?**

Amatasun baja hartu nuen duela urtebete; eta, beraz, alabaren zaintzan ibili naiz azken urtea, bestelako erronkan. Hori ere ahalik eta ondoen betetzen saiatu naiz.

**Bueltatu zarenean, nola aurkitu duzu Aukea? Aldaketa eta berritasun asko?**

Itzuli naizenean azken urteetan eroan dugun lan martxa bera sumatu dut. Hau da, Arrasateko herriari ahalik eta kirol eskaintzarik onena emateko lanean, gogoz eta ideia berritzaileak aurrera eroan nahian. Egia esan, nire barne sentipenak urte osoa kanpoan igaro ez banu bezalakoak dira: lehen egunetik txaluparen timoiari helduta!



Iratxe Aranburu kiroldegiko pilates gelan, eguenean ateratako argazkian. J.B.

**Lan egiteko modua mantendu bada ere, azken urtean kirol eskaintza nabarmen handitu da Aukean. Zein izan da horren arrazoia?**

Azken urteetan kirol zerbitzuaren hainbat arlo ordenatzen ibili gara eta azken urtean ere beste hainbat aspektu ordenatu dira; ondo egin da lan. Azken finean, ahalegin handia egin dugu kirol zerbitzuan eta esango nuke Arrasateko herriak ahalegin hori sumatu duela.

> **"Gorantz joan nahi dugu, hobetzeko gogoekin eta proposamen guztietara zabalik"**

**Eta ahaleginak eman du fruitua, eskaintzok izan duten arrakasta ikustea besterik ez dago...**

Aukean daroadan bi urteetan ikusi dudanez, beti egon dira borondatea eta ideiak jarduerei buelta erdi emateko. Lan horrek denbora behar du, eta orain emaitzak jasotzen gabiltza. Gorantz goaz eta joan nahi dugu, hobetzeko gogo berdinekin eta proposamen guztietara zabalik.

KIROL ESKAINTZA

## Hamaika jarduera berri, norberaren gustura antolatzeko

Iratxe Aranburuk hainbat jarduera azpimarratu ditu. Lehen multzoan, body jam, body balance eta body pump: "Jarduera ildo berriak dira, oso modu profesionalean, berritzailean eta moldagarrian gauzatzen direnak". E-goitek enpresa da zerbitzua kudeatzen duena eta Nuria Rodriguez gaian adituak egiten ditu begirale lanak. Gainera, erabat moldagarriak dira; hots, aerobik, batuka pilates edo spinning ekintzetan daudenak body jarduera horietako edozeinetan gura dutenean sar daitezke.

Bestalde, *total fitness* deritzon eskaintza nabarmendu du kirol teknikariak. Body ekintza guztien bilgune da eta, besteak beste, dantza ezberdinak, indar lana, luzaketak eta yoga moduko ariketa lasaigarriak egin ohi dira. Gainera, funky dantzak eta spinning eta pilates saioak –goizez– ere hartu behar dira kontutan. Informazio gehiagorako, kiroldegira jo edo 943 77 16 77 telefonora deitu.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Labegaraietaraino iritsiko da jolasleku ibiltaria egubakoitzean

17:30etik 19:00etara egingo dute jolaslekua Jarduneko kideek kiroldegi aurreko gunean

Labegaraietakoarekin amaitutzat emango du Jardun elkarteak jolasleku ibiltariaren denboraldia

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Labegaraietara eramango dute datorren egubakoitzean, hilak 23, Jarduneko kideek jolasleku ibiltaria. 17:30etik 19:00etara bitartean egongo dira han, kiroldegi aurreko gunean; eta, ohi bezala, askotariko ekintzak egingo dituzte bertaratzen diren neska-mutikoekin: aurpegia margotu, sokasaltoan, goman... Hori guztia jolaslekuaren lehen zatian egingo dute; bigarrenean, jolaskantuak egingo dituzte. Hau da, abestu egingo dute, baina ez hori bakarrik: abestiok dantzatu eta antzeztu ere egingo dituzte. Hain justu ere, jolasleku ibiltariaren helburu nagusia da betiko haur kantuak abestea, gal ez daitezen. Hori horrela, besteak beste, *Ranroberra*, *Han zeuden* eta *Joxe Martin* abestiak kantatuko dituzte Labegaraietara joaten diren ume eta gurasoek.

**GERO ETA LEKU GEHIAGORA**

Urtean bi sasoitan –udaberrian eta udazkenean– egiten dute Jardunekoek jolasleku ibiltaria eta gero eta leku gehiagora iristen dira. Aurten, esaterako, bi gune estreinatu dituzte erdigunean: Ibargaraiko ziburuen gunea eta Domingo Irala kalea.

Bestalde, aurreratu dute erdigunetik urrun dauden auzoetara ere joaten hasiko direla gero eta zerbitzu osoagoa emateko asmoz. Hala, Angiozarrera, Osintxura, Bolura eta Matxiategira ere joango direla azaldu dute.



Jarduntxo panpina umeekin Domingo Irala kalean. GOIENKARIA

**TEKNOLOGIA** > INTERNET

## Beste hamalau ikastaro emango dituzte azaroan barrena Irizar etxeko KZgunean

Ikastaroak eta KZguneak ematen dituen bestelako zerbitzuak erabat doan dira

**M.B.** > BERGARA

Ikastaroen katalogo zabala eskaini ohi izan du KZguneak eta azaroan ez da gutxiago izango: beste hamalau ikastaro egiteko aukera egongo da hilabete osoan barrena.

Ikastaro gehienak egun batekoak dira, *Internet+e+Administrazioa* delakoa izan ezik. Hori izango da azaroaren 2tik 13ra 11:00-13:00 edo 16:00-18:00 ordutegian eta hilaren 16tik 27ra 18:00-20:00 ordutegian.

Egun bateko ikastaroei dagokienez, honakoak egin ahal izango dira: *Zuhaitz genealogikoa,* azaroaren 2an, 18:00-20:00; *Flickr*, 4an, 09:00-11:00; *Google Docs*, 6an, 09:00-11:00; *Skype*, 10ean, 18:00-20:00; *Gmail*, 13an, 09:00-11:00; *Wi-fia*, 16an, 16:00-18:00; *Sare sozialak,* 17an, 09:00-11:00; *Megaupload*, 19an, 16:00-18:00; *Blogger*, 24an, 09:00-11:00; *Softonic*, 16:00-18:00; *Picnik*, 16:00-18:00; eta *Google Maps Earth*, 30ean, 09:00-11:00.

**ZERBITZU GEHIAGO**

Ikastaroez gain, KZguneko erabiltzaileek sarean nabiga dezakete eta posta elektroniko kontua sortu, besteak beste.

**txaloak eta txistuak**



GOIENKARIA

## Baldosak solte daude Herrilagunak kalean

Herrilagunak kalean, bazar txinatarraren parean, "zortzi bat metro karratuan zoruko baldosak solte daude", kexu da herritar bat. "Aurreko astean euria egin zuen eta pentsatzekoa da nola geratu ziren geure prakak", jarraitu du erredakziora deitu duen herritarrak. Era berean, eskatu du baldosok "ahalik eta azkarren konpontzeko".

**oharrak**

UDALA

**> Pintxoak saltzeko plazan jarriko den posturako deialdia**

Azaroaren 7an okela gisatu lehiaketa egingo da eta pintxo moduan salduko da gero okela hori. Bada, pintxook saltzeko San Martin plazan jarriko duten postua ustiatzeko deialdia egin du Udalak. Herriko irabazi asmorik gabeko elkarte edo taldeek har dezakete parte. Eskaerak aurkezteko epea bukatuko da urriaren 27ko 13:30ean.

IKASTAROA

**> HABEren 4. mailako ikastaroa emango dute Udal Euskaltegian**

Eskolak izango dira martitzen eta eguenetan, 18:00-20:30 ordutegian. Izena emateko deitu 943 76 44 53 zenbakira edo idatzi *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net* helbidera.

HITZALDIA

**> Hondurasen gaineko hitzaldia bihar, martitzena**

*Honduras zutik* izenburupean egingo du hitzaldia Betty Matamorosek. Bloque Popularko kidea da Matamoros eta estatu kolpearen aurkako frontearen nazioarteko arduraduna. Komite Internazionalistek antolatu dute hitzaldia.

KINTADA

**> 1959an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Tartufo jatetxean. Hitzordua egin dute 20:00etarako Fraiskozurin. Izena emateko azken eguna da azaroaren 10a. Horretarako sartu beharko dira 70 euro Kutxako kontu zenbaki honetan: 2101 0070 81 0127058220.

KINTADA

**> 1960an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Lasa jatetxean. Izenematea da Igarza harategian edo Barrenkaleko estankoan. Izena emateko orduan 10 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

**> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Agorrosinen. Afaria izango da 21:00etan eta gero dantzaldia ere egongo da. Izenematea dira 15 euro, Agorrosinen eta Onceko kioskoan. Izena emateko azken eguna da azaroaren 12a.

KINTADA

**> 1934an jaiotakoek –55eko kintoak– bazkaria egingo dute**

Azaroaren 21ean egingo dute, Erreki erretegian. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta 14:45ean izango da bazkaria. Izenematea da Errekin eta aurreratu behar dira 12 euro.

KINTADA

**> 1962an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 31n egingo dute, Tartufon. Autobusa egongo da joan-etorrirako. Izenematea da urriaren 25a aurretik, Ariznoa, Etxagi eta Deportivo tabernetan (10 euro aurreratu behar dira).

KINTADA

**> 1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 24an egingo dute afaria. Izenematea da urriaren 15a, eguena, baino lehen Deportivo tabernan. Izena ematerakoan 10 euro aurreratu behar dira.

**Mikel Larrañaga** > Lokatza ziklismo eskolako kidea

# "Emakumezkoen lasterketa bat antolatzea dugu buruan"

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

**Ziklismoko denboraldia amaitu berri badago, Lokatzako kideak lanpetuta dabiltza. Tartean Mikel Larrañaga (Bergara, 1963), aurten egindako lasterketen txostenak egin, datorren denboraldiko lasterketak prestatzen hasi eta ziklisten lizentziak berritzen. Taldearen gainean berba egiteko elkartu gara Lokatzakoarekin.**

**Zer moduzko denboraldia izan da amaitu berri dena?**

Ona. Aurten sei lasterketa antolatu ditugu, amateur, gazte eta kadete mailakoak, eta esango nuke Euskal Herrian lasterketa gehien antolatzen duen kluba garela. Gainera, Lokatzako eskolan 30 ziklistatik gora ditugu, infantiletatik hasi eta gazte mailaraino, eta pozik gaude, aurreko urteekin alderatuta, zenbateko polita delako hori.

**Datorren urtean aldaketak izango dira.**

Bai, azken bi urteotan ziklokrosa antolatu du Lokatzak, baina datorren denboraldian ez da horrelakorik izango. Horren trukean, gure asmoa da Osintxun hasiko den emakumezkoen amateur mailako lasterketa antolatzea, baina horretarako egutegiak aztertu behar ditugu, bestela lanak pilatu egiten dira-eta.

**Gipuzkoan txirrindularitzaren egoera gainbeheran dago, baina hori ez da Bergarako klubaren egoera.**

Ez, uste dut gu azken urteotan baino dezente hobeto gabiltzala, ziklista kopuru politarekin. Baina bai, inguruan ikusten dugu gainontzeko klubak zelan dauden, eta zenbat kostatzen den babesleak, lasterketetarako bolondresak aurkitzea... Hala, Sumofic enpresak ematen digun laguntza eskertzekoa da, eta baita klubaren alde lan egiteko eta lasterketak antolatzeko gertu dagoen jendearen laguntza ere.

**"Uste dut Euskal Herrian Lokatzak antolatzen dituela klub bezala lasterketa gehien"**

**"Aranzetak amateur mailara egingo du salto; seguruenik Eibarko CDR taldearekin korrituko du"**

**Aurten, horrenbeste gazteren artean taldeko txirrindulari bat nabarmendu da.**

Bai, Xabier Aranzeta. Urte oso polita egin du, lasterketak irabazi ditu eta askotan ikusi dugu podiumeko postuetan. Datorren urtean, berriz, salto handia egingo du, amateur mailan lehiatuko delako. Seguruenik, Eibarko CDR taldearekin lehiatuko da.

**Ikasteko urtea izango da.**

Bai, duda barik. Amateur mailan 18 eta 19 urteko gazteak euren artean lehiatzen direnean indarrak nahiko parean egoten dira. Gehienak ikasketekin ibiltzen dira buru-belarri, eta ahal dutenean entrenatzen dute. Baina, 23 urte azpiko gainontzeko ziklistekin elkartzen direnean alde handia egoten da.

**Egoera kontrajarria da. Geroago eta zikloturista gehiago dago Gipuzkoan, baina klubak ez daude onenean.**

Argi dago jendeari txirrindularitza asko gustatzen zaiola. Baina, nahiago izaten dugu bizikletan Asentziora joan eta lasterketa bat bertatik-bertara ikusi, lasterketa hori antolatzeko laguntzen hastea baino; jende horren laguntza eskertzekoa izango zen.



Mikel Larrañagak hogei urte baino gehiago daramatza Lokatzan. JOSETXO ARANTZABAL

**KULTURA** > PINTURA

# Aurtengo ikasturtean 30 gaztetxo dabiltza Beartek antolatutako pintura ikastaroan

Joan den urriaren 3an ekin zioten ikasturteari izena eman duten 5-13 urtera bitarteko 30 gaztetxoek; zapatu goizetan elkartzen dira Boluko lokalean, hiru orduz



Ikastaroan diharduten ikasle gaztetxoak, Mayra Jimenez eta Ainhoa Alberdi irakasleekin, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aurten ere gaztetxoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du Beart herriko artisten elkarteak. Joan den urriaren 3an ekin zioten ikasturteari izena eman duten 5-13 urtera bitarteko 30 gaztetxoek. Hain zuzen ere, 30 plaza zeuden eta ikasle bat edo beste kanpoan geratu da toki faltagatik.

Mayra Jimenez eta Ainhoa Alberdi dira irakasleak. Aurten 12. urtez antolatu dute gaztetxoendako eskolak. Zapatuan elkartzen dira Beartek Bolun duen egoitzan, 10:00etatik 13:00etara. Astelehenetan ere beste ikastaro bat antolatzeko asmoa zeukaten, baina bertan behera geratu da eskari nahikoa ez delako izan.

**OLIOAK ETA TENPERAK**

Zapatuko eskolak bi zatitan banatzen dituzte: lehenbizikoan marrazketari buruzko azalpenak jasotzen dituzte ikasleek eta bigarrenean koadroak lantzen dituzte, ikasle nagusienek olioak eta txikienek tenperak, hain zuzen ere. Ikasturtea ekainera arte izango da. Iaz bezala, udaberri partean, Gasteizko Artium museora bisita egingo dute. Bergarako margolari harrobiak emankorra izaten segitzen du.

> ERAKUSKETAK

## Joxan Iza margolaria Aroztegin eta Martin Garmendia Nahikarin

Joxan Iza margolariak erakusketa zabalduko du egubakoitzean Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Azaroaren 8ra arte izango da zabalik, ohiko ordutegian.

Bestalde, Martin Garmendiaren margo erakusketa ikusgai dago Masterrekako Nahikari tabernan. Hamar lan zintzilikatu ditu, eta paisaiak dira nagusi. Rikardo Azkargortarekin batera ikasten dabil Garmendia.

> MUSIKA

## Egaña bertsolaria eta Ansorena txistularia, organo zikloan

Organo erromantikoaren zikloaren barruan, emanaldi bitxia izango da zapatuan, hilaren 24a, San Pedro parrokian. Aitor Olea organo-jolearekin batera, Andoni Egaña bertsolaria eta Inazio Ansorena txistularia arituko dira. Aurtengo zikloko Bergarako azken emanaldia izango da.

Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrera doanekoa izango da.

**Sara Carracedo** > Elkolab enpresako kidea

# "Elikagaien manipulatzaile ziurtagiria eskuratu ahalko dute"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Janari eta edari sektorean espezializatua den aholkularitza enpresa da Elkolab Kooperatiba. Elikagaien manipulatzaile ziurtagiria lortzeko bi ikastaro egingo dituzte Oñatin, urriaren 26an eta 28-29an. Eskolak emango dituen Sara Carracedok eman dizkigu ikastaroen gaineko datuak.**



Sara Carracedo Elkolab kooperatibako Oñatiko bulegoan. MIREIA BIKUÑA

**Bi ikastaro egingo dituzue.**

Ikastaro trinkoak dira. Elikagaien manipulatzaile ikastaroak dira biak; bata arrisku txikien gainekoa, urriaren 26an, 14:00etatik 17:00etara; eta bestea arrisku handien gainekoa, urriaren 28an eta 29an, 16:00etatik 19:00etara.

Arrisku txikien ikastaroa dendariei dago zuzendua. Arrisku handiena, aldiz, sukaldaritzan lan egiten dutenei. Azken horien kasuan, jakiak erosi eta prestatu egiten dituzte eta kutsatzeko arrisku handiagoa dute.

Dena den, parte-hartzea irekia da. Gaian interesa duen edonork parte har dezake. Bi ikastaroetan parte hartzen dutenek elikagaien manipulatzaile ziurtagiria jasoko dute.

**Nolako ikastaroak izango dira?**

Gehienbat, teoria landuko dugu. Baina kasu praktikoak ikusiko ditugu, batez ere arrisku handien gaineko ikastaroan. Bestalde, ziurtagiria lortzeko test bat egingo diegu bukaeran. Arrisku txikien ikastarokoei hamar galdera jarriko dizkiegu eta beste ikastarokoei, 20 galdera.

**"Bi ikastaro egingo ditugu; arrisku txikiena bata eta arrisku handiena bestea"**

**"Informazioa jasotzeko edo izena emateko, 943 53 33 03 telefonora dei daiteke"**

**Nortzuek eduki behar dute elikagaien manipulatzaile ziurtagiria?**

Jakiekin lan egiten duten guztiek izan beharko lukete ziurtagiria. Batzuek agian ez dute, aspaldi zabaldu zutelako negozioa.

**Non eman daiteke izena?**

Informazioa jasotzeko edo izena emateko 943 53 33 03 telefonora dei dezakete. Oraindik tokia dugu, baina gehienez 12 lagun onartuko ditugu.

**Non emango duzue ikastaroa?**

Oñatiko bulegoa Ulmako Zentro Teknologikoan dugu. Saihesbide ondoan dagoen eraikinean gaude, eta han egingo dugu.

**KULTURA** > ERAKUSKETA

# Teknika zaharrarekin egindako 25 erretratu

Gorka Salmeron legazpiarrak argazkiak jarri ditu ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan

**M.B.** > OÑATI

Gorka Salmeron legazpiarrak formatu handiko 25 erretratu jarri ditu kultura etxeko erakusketa gelan. Ikusgai egongo dira azaroaren 6ra arte, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

**"BEGIRADA ZUZENEKOAK"**

Hiru garaitako pertsonak bildu ditu: haurrak, helduak eta adinduak. Gehienak pertsona anonimoak dira, baina badira ezagunak ere. "Legazpiko bizilagunak, lagunak eta etxekoak dira nagusi. Besteak beste, alabaren erretratua dago lau hilabete zituenean. Baina guztiondako ezagunak direnak ere badaude; adibidez, Ruper Ordorika eta Bernardo Atxaga", esan digu egileak.

*Erretratuak* izeneko erakusketan dauden argazkiak analogikoan eta XIX. mendeko teknikarekin eginikoak dira. "20x25 zentimetroko negatiboak erabili ditut erretratuok egiteko. Argazki batzuk handitzeko, batzutan, 70x90 zentimetroko negatiboak erabili ditut".

Horrelako erretratuak egiteko prozesua nahiko luzea dela esan digu Salmeronek: "Ez dauka zerikusirik argazki digitalarekin. Analogikoan, argazkia egiteko, errebelatzeko eta handitzeko denbora behar duzu. Erakusketako erretratuak estudioan egindako argazkiak dira, zuri-beltzekoak, eta guztiak begirada zuzenekoak. Erradiografiak bezala direla diot nik".



Gorka Salmeron, erakusketan jarri duen erretratu batekin. MIREIA BIKUÑA

**KULTURA**

# I. Trikiti jaialdirako sarrerak salgai daude

Kultura etxean edo Urbia eta Umerez tabernetan eros daitezke 10 eurotan

**M.B.** > OÑATI

Lizargarateko Trikitizale Elkarteak I.Trikiti jaialdia antolatu du zapaturako. Dagoeneko salgai daude jaialdirako sarrerak eta Oinarri elkartean egingo duten afarirako txartelak. Biak ala biak kultura etxean edo Urbia eta Umerez tabernetan eros daitezke. Sarrerak 10 eurotan eta afarirako txartelak 20 eurotan.

**PARTE-HARTZAILEAK**

I. trikiti jaialdia 17:00etan egingo dute eta, besteak beste, Oñatiko trikiti eskolakoek, Miren eta Agurtzanek, Maixa, Ines eta Izerrek, Iker Allur eta Narbaizak eta Epelde eta Iturbidek parte hartuko dute.

**KIROLA**

# Ikastaro eskaintza berria kiroldegian

Batuka, pilatesa eta haurdunaldirako gimnasia emango dituzte urrian

**M.B.** > OÑATI

Zubikoa kiroldegiak ikastaro eskaintza berria du urrirako. Hain zuzen ere, batuka txiki eta batuka gazte, pilates hastapena eta haurdunaldirako eta erditze ondorenerako gimnasiak.

Batuka txiki (8-12 urte) eta batuka gazte (13-15 urte) ikastaroak egubakoitzetan emango dituzte. Bestalde, haurdun dauden emankumeendako eta dagoeneko umea eduki dutenendako ikastaro bereziak egingo dituzte.

**PILATES IKASTAROA**

Pilates talde batzuetan oraindik tokia dute. Hastapen ikastaroak ematen dituzte urriaren 21ean eta 28an, 20:15ean; urriaren 20an, 22an, 27an eta 29an, 09:15ean; eta urriaren 19an, 21ean, 26an eta 28an, 17:15ean. Kiroldegian eman behar da izena.

**ESKORIATZA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

# Eskohitzak webgune berria estreinatu eta sare sozialetara salto egin du




Eskohitzaren irudi berria. GOIENKARIA

## Komunitatearen jarraipena egiteko bi modu berri aurkeztu dituzte: 'Twiter' eta 'Facebook'

## Urtebete pasatxo iraun du lehenengo wegbuneak; Eskohitza komunitatearekin batera sortu zen

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskohitza komunitate berriak webgune berritua du. Hemendik aurrera *www.eskohitza.com* webgunera sartzen direnek ezkerraldean blogarien tartea topatuko dute; eskuman, berriz, hitzorduak, aipagarriak eta bideoak. Albisteak goian ikus daitezke.

Aitzorrotz kultura elkartearen ideiatik abiatuta, Eskoriatzako hainbat herritarrek *Eskohitza.com* blog komunitatea sortu eta sarean zintzilikatu zuten joan den urteko ekainean. Horren helburua da espresatzeko eta iritziak emateko aukera izatea.

Blogez gain, beste hainbat webguneetara loturak, bideoak eta albisteak dituzte. Berez blogariek gura duten hizkuntzan idazteko aukera duten arren, erabiltzaile gehienek euskarari lehentasuna eman izan diote hasieratik.

**'TWITTER' ETA 'FACEBOOK'**

Webgune berria egiteaz gain, gaur egungo gizartean sare sozialek duten garrantziaz jabetu dira; eta hortaz, Eskohitza komunitatearen jarraipena egiteko bi modu berri aurkeztuko dituzte: *Twitter* eta *Facebook*. Lehenengoaren bidez, albisteak eta datozen egunotako agenda ikusteaz gain, komunitateko blogariek idazten dutena ere begiratu ahalko dute. Horretaz gain, *Facebook* delakoarekin, Eskohitza komunitateko lagunekin kontaktuan jartzeko aukera egongo da.

**ESKORIATZA**

# PSE-EEk udalendako fondoak eskatu ditu

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako PSE-EE taldeko zinegotzi Iñaki Pierruguesek udalei krisiari aurre egiten laguntzeko fondoak sortzeko eskatu zion joan den astean prentsa ohar baten bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsiotarako Estatuko Fondoa udalendako "arnasbide garrantzitsua" izan dela adierazi zuen Pierruguesek. Hala, Diputazioari plan horri jarraipena emango dion fondo osagarria martxan ipintzeko eskatu zion.

Gogoratu zuen Madrildik 700.000 euro etorri direla aurtenEskoriatzara; hamar proiektu eginda egongo dira abendurako, diru horrekin.

# Hilaren 7an 101 urte egin zituen Rosalia Blanco eskoriatzarrak

Urriaren 7an Rosalia Blancok 101 urte bete zituen. Egun horretan omenaldia egin behar zioten etxean, baina ospitalean zegoen. Hortaz, Udaleko zinegotzi Begoña Eraña joan zen hara, Udalaren partez zoriontzeko eta opari bat emateko. Jubilatuen elkarteko kide bat ere joan zen bisitatzera. Ondoko irudia, Jubilatuen egunekoa da.



ESKORIATZAKO UDALA

**KULTURA** > ZINEA

# Asteon filmak itzuliko dira Arkupera

## Lehen emanaldia eguenean da, zineklubaren harira; *Bienvenidos al norte* ikusi ahalko da

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Zine zaleek ez dute Arkupen emanaldirik ikusteko aukerarik izan joan den uztailetik; orduan udako zinea egon zen. Lehorte hori, baina, asteon bertan amaituko da. Eguenean, hilak 22, zinekluba hasiko da berriro, *Bienvenidos al norte* filmarekin. Dany Boonek zuzendutakoa da eta adin guztietako ikusleendako egokia da. Urriaren 29an, berriz, *Lejos de la tierra quemada*-ren txanda izango da. Zinekluba 19:30ean da eta sarrerek lau euro balio dute.

**'GRAN TORINO'**

Hori zineklubari dagokionez. Horretaz gain, ohikoa den moduan, komertzialagoak diren filmak ere egongo dira hilabete honetan zehar. Hala, urriaren 23tik 26ra bitartean, *Gran Torino* ikusi ahalko dute aretxabaletarrek; hilaren 23an eta 24an, 22:00etan; urriaren 25ean, 19:30ean; eta hilaren 26an, 16:00etan. Lehenengo hiru egunotan joaten direnek lau euro ordaindu beharko dituzte eta astelehenekoarratsaldeko saiokoek, berriz, bi euro. Zuzentzeaz gain, protagonista ere bada Clint Eastwood aurten estreinatutako drama horretan.

**'SLUMDOG MILLIONAIRE'**

Urriaren 30 eta 31n ere ez da zinerik faltako Arkupen. Kasu honetan, *Slumdog millionaire* ikusteko aukera egongo da 22:00etan, lau euroren truke. Esandako bi filmak 13 urtetik gorakoendako gomendagarriak direla jakinarazi dute Arkupeko kultura egitaraua egiteaz arduratzen direnek.

**'LA PANTERA ROSA 2'**

Bestalde, haurrendako zinea ere berreskuratuko dute. Domekan, hilak 25, izango dute bere tartea, 17:00etan. *La Pantera Rosa 2* filma ikusi ahalko dute zazpi urtetik gorako neska-mutikoek. Sarrerak hiru euro balio du.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Kontseiluak udalen hizkuntza politikak neurtu ditu; irudian, emaitzak jakinarazteko egindako agerraldia. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > KONTSEILUA

# Udalak euskararen alde duen politika txalotu dute

Kontseiluak udalen hizkuntza politikak neurtu ditu eta Aramaiok 9,10eko nota lortu du; udal euskaldunen bederatzigarren dago

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO

Kontseiluak udalen hizkuntza politikak neurtu ditu, eta dagoeneko neurketa horien emaitzak ezagutarazi ditu. Emaitza kuantitatiboei dagokienez, 0tik 10erako tartean, Aramaioko Udalak 9,10eko nota lortu du eta bederatzigarren dago Hego Euskal Herrian neurtutako ehunetik gorako udalen sailkapenean.

Horretaz gain, hizkuntza politiken elementu positiboak eta hobetu beharrekoak zehaztu ditu. Aramaiok dituen elementu positiboen artean, honakoak azpimarratu ditu: Euskara Plan orokorra izatea, Euskara Zerbitzua edukitzea, euskararen aurrekontua aurrekontu orokorraren %4tik gora egotea, estrategikoak diren lanpostuetan hizkuntza eskakizunak ezarrita izatea eta euskara hutsean jarrita izatea Udalaren hizkuntza-paisaia ia guztia, baita obretako errotulu gehienak ere.

**ZENBAIT HUTSUNE**

Hobetu beharrekoen artean, berriz, Kontseilutik azaldu dute herritarrekiko harreman zuzena duten azpikontratatuko zerbitzuen artean, kasu batean kontratazioko baldintza pleguetan zerbitzua elebiduna ez izatea ez zela eskatu. Gainera, Udalaren aholkularitza juridiko eta teknikoei dagokienez, enpresek egin beharreko txostenak eta bestelakoak honela araututa egon arren, praktikan ez direla beti betetzen adierazi dute.

**UEMA, POZIK**

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak UEMAko udalek jasotako emaitza onak azpimarratu ditu; izan ere, Kontseiluak egindako sailkapeneko aurreneko hamar postuetan daudenak UEMAko udalak dira. Hortaz,euskararen normalizazioan jarraitzen den eredua "baliagarria" dela nabarmendu du. Dena den, oraindik herriz herri zer hobetu badagoela ere aipatu du.

**ANTZUOLA** > JENDARTEA

# Gaztetxea herrira zabaltzeko ekintza agenda bat banatuko dute hilero etxeetara

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Gaztetxea herrira zabaltzeko eta herria gaztetxeko zati izateko beharra ikusita, gaztetxekoek agenda bat gertatu dute eta asmoa da hala egitea hemendik aurrera. Horrela, nahi dute gaztetxea izatea "beldur eta aurreiritzirik gabe sartuko diren lekua ; umeek gozokiak erosiko dituztena eta txikiteroek baso erdiak hartu".

Herriak bere kultura edo dinamika sor dezakeela erakustea ere bada helburua. Gaztetxekoen esanetan, "ez dago aurrez egindako entretenimendu moldeetan geratu beharrik. Herriak bere aisialdia eta egon ezinak uztar ditzakeen toki bat posible da".

**HILEAN BI EKINTZA GUTXIENEZ**

Hori dela eta hilabete hasieran agenda kaleratu eta herritarrek etxean jasoko dute. Gaztetxekoen erronka da hilean gutxienez bi ekintza antolatzea. Hilabetean behin film bat emango dute eta beste ekintzak aldakorrak izango dira: ikastaroak, hitzaldiak, kontzertuak...

Urriko hurrengo ekintza *Donie Darko* filmaren emanaldia egingo dute, hilaren 25ean 18:00etan. "Posible den heinean doakoak izango dira, eta herritar denak egongo dira gonbidatuta", diote gaztetxekoek.

Gaztetxeak ordutegi finkoa izango du hemendik aurrera: egubakoitzetan eta zapatuetan 19:00etan zabalduko dute eta asanbladak domeketan 16:30ean izango dira. Gainera aurtengorako lelo bat ere ipini dute: *Gaztetxia herri, herrixa gaztetxe!*

**ELGETA** > SUA PATRONATUAREN ERAIKINEAN

# Lehen solairuko zoruaren zati bat jausi egin da

Gaizki itzalitako suak eragin du ezbeharra; jaustear egon arren, umeak ibili ei dira bertan; egunen batean zerbait larria gerta daiteke

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Patronatuaren eraikinean izan ziren eguenean suhiltzaileak. Jaustear egon arren umeak ibiltzen ei dira bertan, eta sua egiten dute. Asteburuan egin eta gaizki amatatutako sua habe garrantzitsu bat kontsumitzen joan da, kiskali eta eusten zuen zorua behera jausi den arte.

**ERAIKINA, APEZPIKUTZARENA**

Ez da lehenengo aldia sua dagoela; brigadako langileak amatatu izan dute aurretik. Udaletik adierazi dute saiatzen direla eraikinaren sarrerak ixten, baina oso zaila dela. Esan dute, gainera, Domingo Iturbe patronatuko ordezkariak egoeraren jakinean daudela.


Udalak biltegi moduan erabiltzen duen lokalera jausi da zorua. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > KULTURA

# San Milixan feriako postuetarako eskaera asko

Pilotalekuan 15 posturendako dago lekua eta aukeraketa egin du Udalak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Hilabete eskas geratzen da San Milixan feriarako, azaroaren 15ean ospatuko dutelako aurten. Ferian egon gura duten artisauek irailean izan zuten izena emateko aukera, eta hainbat artisauren eskaintzak jaso zituzten udaletxean. Orain aukeraketa egin dute, pilotalekuan 15 posturendako bakarrik dagoelako lekua.

**ARTISAUEN ERAKUSTALDIAK**

San Milixan egunaren bueltan egiten den ferian artisauak dira protagonista eta produktu ezberdinak eskaintzen dituztenak ekartzen saiatzen dira urtero. Izena emandako guztiendako, baina, ez dago lekurik eta hainbat irizpide hartu ditu kontuan aukeraketa egiteko sortutako batzordeak. Artisauei egindako deialdian bertan, hainbat baldintza zeuden zehaztuta, tartean honakoak: salgai egongo diren produktuen egilea artisaua izatea derrigorrez eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea. Gainera, aparteko erakustaldiren bat ekartzen saiatzen da urtero Udala; iaz, esaterako, beira puztuarena izan zen.

Artisau erakusketa egiteko aukera ere badago egun horretan eta artisau tailerrak antolatu gura dituztenek pilotaleku alboan izango dute txokoa; iaz, xaboi naturalen tailerra egin zuten bertan.

**'SORGINAK' TALOAK EGITEN**

Bestalde, herritarrek parte-hartze handia dute egun horretan eta Sorginak emakume elkarteak aparteko lana egiten du: taloak egin eta saldu eta artisauendako bazkaria gertatu.



**> FUTBOLA**
Zallaren aurka galdu egin du UDAk etxean lehia parekatuan **> 22-23**




**> SASKIBALOIA**
Boladaka bakarrik jokatuta, MUk ezin Ardoiri irabazi Iturripen **> 24**



**> JOSUNE BEREZIARTU**
Munduko emakume eskalatzaie onenarekin izan gara **> 27**



**PUTZUA** Frogarik zailena lokatz-putzutik ateratzearena izan zen. JOSETXO ARANTZABAL



**MALDAK** Zulo sakonetatik atera behar izan zuten autoa. J. A.



**ZAILTASUNA** Zailtasun mailak ematen zituen puntuak. J.A.

**4X4 TRIAL A** > EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAKO AZKEN SAIOA JOKATU ZUTEN APOTZAGAN ZAPATUAN

# Xabier Oñederra geratu da hirugarren Euskal Herri mailan

**LLANERA IRABAZLE**
Zapatuko saioan eta txapelketan Aitor Llanera da lehena

**PARTE-HARTZEA**
27 autok hartu zuten parte eta jendetza handia gerturatu zen

**LEHEN TXAPELKETA**
Hurrengo urtean ere txapelketa jokatzea nahiko lukete antolatzaileek

**JON BEREZIBAR** > ESKORIATZA

Eskoriatzan, Apotzagan, egindako probarekin amaitu da Euskal Herriko 4x4 txapelketa eta antolatzaileak gustura daude zapatu arratsaldekoarekin. 27 auto lehiatu ziren eta txapeldunen artean bigarren postuan etxeko bat geratu zen (antolatzailea bera ere): Xabi Oñederra aretxabaletarra. Ingurukoez gain, nafar eta bizkaitar ugari ere egon zen frogan eta batez ere jendetza. Bi kategoriatan banatuta dago txapelketa: 33 hazbeteko gurpiletik gorakoak eta beherakoak. Gurpil handietan, baina, partaide bakarra egon zen (Iñigo Altzugarai, Irun) eta hark irabazi zuen. Garaipena, baina, ez zitzaion merke atera: palierra guztiz hautsita bukatu zuen. 33 hazbetez beherakoetan Burgosko Aitor Llanera izan zen txapelduna, bigarrena Oñederra eta hirugarrena Zornotzako Oscarcito izan zen.

**LLANERA TXAPELDUN**

Portugaletekoa da izatez Llanera, baina aspalditik bizi da Medina de Pomarren (Burgos, Espainia). Zapatukoa azken saioa izanda, Llanera bera da Euskal Herriko txapelduna. Euskal Herri mailan ere hirugarren sailkatzea lortu du Xabier Oñederrak. Bigarrena, maila berean, Garikoitz Itsaso nafarra da.

Zapatuko probari dagokionez, ibarreko ordezkariek ere lan txukuna egin zuten, Ander Zugasti oñatiarra laugarren geratu baitzen eta Aitor Frutos eskoriatzarra bosgarren. Lehen aldia da Euskal Herriko txapelketa jokatzen dena eta antolatzaileek gogoz segitzen dute; hurrengo urtean ere bertan antolatzea gurako luketela diote. "Horretarako lurrak beharko" dituztela dio Oñederrak (obretako zabortegiak normalean) eta bide batez babesleei ere emandako laguntza eskertu gura die.

ESANAK

**"Jendeak emandako erantzunarekin pozik gaude, jende asko etorri da; eskerrak haiei eta baita babesleei ere"**
**Xabier Oñederra** > Antolatzailea

**"Gustura gaude probarekin, kolpe eta palier bakan batzuk apurtzeaz gain, bestelako gertaerarik ez da egon"**
**Xabier Oñederra** > Antolatzailea

**"Nahiko genuke hurrengo urtean ere hemen jokatzea proba; horretarako lurrak behar ditugu eta gutxi daude"**
**Xabier Oñederra** > Antolatzailea

**HIRUGARREN MAILA** > 10. JARDUNALDIA

# Gol bakarrarekin erabakitzeko arriskua zuen partiduak, eta kanpokoek egin zuten

Oso norgehiagoka parekatua jokatu zuten debagoiendar eta bizkaitarrek; aukera gutxiko lehia izan zen, berdinketa merezi zuena agian



Aukera garbirik gabeko partidua izan zen Aretxabaletak eta Zallak Ibarran jokatutakoa; atezain

ARETXABALETA
**0-1**
ZALLA

**Aretxabaleta** > Eden, Haritz, Alain, Iban, Andoni, Ruben (Orueta, 46. min.), Akaitz (Aitor, 81. min.), Gotzon, Borja, Imanol eta Iban Vila (Oinatz, 56.min.).

**Zalla** > Iker, Toño, Agueros, Willi, Galder, Imanol, Casado, Alex (Gauna, 86. min.), Azanza (Raul, 74. min.), Aitor eta Joseba (Endika, 90. min.).

**Epailea** > Sansuan jaunak zuzendu zuen partidua. Ulazia eta San Martin jaunak izan ziren marrazainak.

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Joko ona baino gehiago, borroka eta parekotasuna dira 3. Mailako ezaugarri, Aretxabaletaren aurtengo orain arteko ibilbidea erakusten ari denez. Eta borroka horretan, sarri garaile atera da Aretxabaleta denboraldi hasiera honetan; atzo, ordea, ez zen posible izan. Oso aukera gutxiko partidua jokatu zuten etxekoek eta Zallak, husna amaitu edo irabazteko gol bakarra nahikoa izaten den horietakoa. Eta lehiak golik gabe amaitu behar zuela ematen zuenean, bizkaitarrek egin zuten gola, eta Aretxabaletak ez zuen berdintzeko aukerarik izan.

Zelai erdiko partidua izan zen Aretxabaleta eta Zallaren artekoa. Bi taldeak atzean ondo jarrita, kosta egin zitzaien erdiko lerroa gainditu eta eraso posizioetara eroso iristea. Zalla izan zen aurreneko ahaleginak egin zituena; ezker hegaletik sartu ziren gehienbat bizkaitarrak, eta erdiraketa on batzuk ere atera zituzten, baina erremate onik gabekoak, kasu baten salbu. 10. minutuan gola egin zuten ezker hegaletik ateratako falta batean, baina marrazainak banderatxoa jaso zuen, eta jokoz kanpo adierazi.

**FALTA JAURTIKETAN**

Aretxabaletak ez zuen aukera garbirik izan lehenengo zatian. Imanol izan zen gehien ahalegindu zena, baina beti urrutitik egindako jaurtiketetan, atezaina ezustean harrapatu guran.

Bigarren zatian ez ziren gauzak batere aldatu. 58. minutuan ondo jaurti zuen falta Aretxabaletako Akaitzek, baina baloia langa gainetik kanpora joan zen gutxigatik.

Ordu erdia bete eta lasterrera partiduko jokaldi eztabaidagarria gertatu zen: Astolak falta atera zuen bere areatik, Gotzonek buruz orraztu eta Oinatzi geratu zitzaion aukerako baloia. Zallako atzelaria, baina, gainera etorri zitzaion. Penaltia adierazteko moduko jokaldia, baina epaileari ez zitzaion iruditu.

Eta handik bi minutura, kanpokoen gola: aretxabaletarrak ari ziren erasoan ezker hegaletik; baloia galdu eta alde harta-

**ERREGIONAL PREFERENTEA** > 6. JARDUNALDIA

# Ordu erdian utzi zuten erabakita lehia etxekoek

ANTZUOLA
**4-0**
GETARIAKO

**J.I.** > ANTZUOLA

Oso liga hasiera ona ari da egiten Antzuola Erregional preferente mailan. Asteburuko jardunaldian erraz hartu du mendean Estalara iristean partidurik galdu gabea zen Getariako. Sei partidutan hiru irabazi eta bat berdinduta sailkapeneko goiko postuetan daude antzuolarrak.

Bikain hasi zuen zapatuko lehia Antzuolak. 20. minuturako 2 eta 0 zebilen irabazten, Iker Cabrera eta Ibai Azkarateren golekin. Laster egin zuen Jon Gurutz Godoik hirugarrena, eta atsedenaldia baino lehen euren atean sartu zuten getariarrek azkena.

Golez gain, joko polita egin zuten etxekoek aurreneko zatian. Sekula baino hobeto mugitu zuten baloia, behetik mugitu ere. Orain arteko "zelaian" goitik eta luze jokatzen ohituak, belar artifizialeko zoru berriarekin ari dira bestela jokatzen saiatzen. Iban Unanue entrenatzailearen arabera, entrenamenduetan ari dira baloia hobeto erabiltzea lantzen, eta zapatuan ikusitakoaren arabera, ahalegin hori ari da fruituak ematen.

**ATZEAN, ARAZORIK EZ**

Lehenengo zatian partidua erabakita, bigarrenean aldaketak egin eta emaitzari eusteko asmoarekin zelairatu ziren Unanueren mutilak. Atzealdean ez zuten batere arazorik izan. Getariakok ez zuen arriskurik sortu, kornerren edo alboko sakeren batean salbu.

Garaipen honek beste irakurketa baikor bat ere badu. Antzuolarentzat oso jokalari garrantzitsua da Zubikarai. Oraingoan zigortuta zegoen, baina bera gabe ondo irabazteko gai izan ziren. Datorren jardunaldian Lazkaon ariko da Antzuola.


Nahikoa lan izan zuen Getariako atezainak Estalan. JOSETXO ARANTZABAL

**OHOREZKO MAILA**

# Defentsan sendo, eta erasoan zital

Bi kolpe bizkor jo, eta ondo eutsi zion gero Bergarak Trintxerperi

**J.I.** > BERGARA

Bergarak partidu bikaina jokatu zuen aurkari on baten zelaian. Defentsan gogor eta kontraerasoan ondo, nahiz eta golak bestela iritsi (0-2).

Lehenengo 10. minutuan iritsi zen: falta jaurtiketa batean, Loiolak jaso zuen aldaratzea, eta zutoin ondotik sartu zuen baloia; bigarrena, 20. minutuan, zorte apur batekin: Elorriaga baloia urruntzera joan zen 60 metrotik, baina aterako bidea hartu zuen eta sartu egin zen.

Bigarren zatian, fisikoki apur bat behera egin zuen Bergarak; baina aldaketei esker arnasa hartu zuten mahoneroek, eta ez zuten estuasun askorik pasa emaitzari eusteko. Euskalduna dator orain Agorrosinera.


ek ez zuten lan askorik izan. JOSETXO ARANTZABAL

tik bestera eraman zuten baloia bizkaitarrek, kontraeraso bizkorrean. Ondoko marratik ezkerrez erdiratu, eta area txikian buruz egin zuen errematea Raulek, atezainaren eskuin zutoinera, behera. Edenek ezin izan zuen ezer egin.

3. Mailan ohiko taldea da Zalla; argi ikusi zen hori Ibarran, ofizio asko erakutsi zuten kanpokoek partidu osoan, baita azken minutu horietan ere. Partiduko azken ordu laurdenean ez zen batere jokatu; ordura arte aukera gutxi izan baziren, kanpokoek gola egin zutenetik amaierara alerik ere ez. Datorren jardunaldian Gernikaren zelaian jokatuko du Aretxabaletak.

**EMAKUMEZKOEN LIGA** > DERBIA

# Maitane Roak bost gol eta Maialen Lopezek bi sartuta irabazi dio Mondrak Bergarari

MONDRA
**7-2**
BERGARA


Arrasateko jokalariek bigarren zatian mugitu zuten baloia. JOSETXO ARANTZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Domeka arratsaldean jokatu zuten Mondrako eta Bergarako neskek Mojategin debagoiendarren arteko derbia.

Derbia izanik garaipena eta ohorea jokoan egon arren, oso partidu gorabeheratsua eta nahasia izan zen. Gainera, partiduan barrena bi geldiune garrantzitsu izan ziren Bergarako jokalari baten asma atakea zela-eta lehenengoa, 20 minutu ingurukoa, eta jokalari arnasketa arazo batengatik bigarrena, laburragoa. Horrek jokalariak ez ezik jokoa bera ere hoztu zuen domekako giroa bezala.

**LEHENENGO ZATIAN BERDINKETA**

Partidua hasi eta berehala, bosgarren minutuan, Maitane Roak partiduko lehenengo gola sartu zuen. Bergararrek falta bidez partidua berdintzea lortu zuten lehenengo zatian Maite Arantzabalen golari esker.

Berdinduta iritsi ziren, hortaz, bigarren zatira bi taldeak, baina arrasatearrak baloia mugitzen hasi eta buelta eman zioten partiduari.

Maitane Roak baloiarekin duen abilezia erakutsi eta lehenengo zatiko golari beste lau gehitu zizkion, eta Maialen Lopezek bi baloi bidali zituen sareetara. Bergararren bigarren gola ere Maite Arantzabalek sartu zuen. Partidu amaieran zazpi gol arrasatearrek, bi bergararrek.

**OHOREZKO MAILA**

# Euskaldunari irabazita, Aloña bolada onean

## Izandako aukeretan asmatu zuten gorriek, eta defentsan sendo eta serio ibili ziren

**J.I.** > BERGARA

Emaitza aldetik denboraldia nahiko kaxkar hasi ondoren, azken jardunaldiak oso oparoak ari dira izaten Aloña Mendirendako; domekan hirugarren garaipena jarraian lortu zuten Josu Zubiaren mutilek, Euskaldunaren zelaian (0-2).

Lehenengo zatiaren erdi aldera egin zituzten bi golak oñatiarrek: aurrenekoa Haritz Garmendiak, hegaletik bat-bikoekin egindako jokaldia amaituta; bigarrena Josu Juaristik, falta bat bizkor atera eta etxekoen atzealdea ezustean harrapatuta.

Saiatu zen Euskalduna baloi luzeekin Aloña Mendiri min egiten, baina oñatiarrak sendo aritu ziren atzean, eta ez zuten larritasunik izan. Asteburuan Ondarroa liderra etorriko da Azkoagainera.

**OHOREZKO MAILA**

# Mondrak jarri zuen jokoa, golak Hernanik

## Ordu laurden baten hiru gol jaso arren, berdintzeko puntuan egon ziren

**J.I.** > BERGARA

Beste batzuetakoa errepikatu zen, berriz ere, Hernaniren zelaian: aurkariak baino hobeto jokatu, baina puntu gabe etxera (4-2).

20. eta 35. minutuen artean hiru gol jaso zituen Mondrak, bi estrategia jokaldietan –markatzerakoan huts eginda– eta bestea ere Arrasatekoen akats baten erruz.

Lehenengo zatian moduan, bigarrenean ere aukera dezente eta onak izan zituen Mondrak. Herizek eta Muruak 3 eta 2koa jarri zuten, eta berdinketa ere merezi izan zuten, baina baloia ez zen gehiago sartu. Partidu amaieran egin zuen Hernanik laugarrena. Lau aldiz iritsi eta lau gol egin zituzten etxekoek. Orain, Ordizia.

**emaitzak eta sailkapenak**

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **23** | 10 |
| 2. **Amorebieta** | **19** | 10 |
| 3. **Gernika** | **19** | 10 |
| 4. **Zalla** | **19** | 10 |
| 5. **Beasain** | **18** | 10 |
| 6. **Amurrio** | **16** | 10 |
| 7. **Baskonia** | **16** | 10 |
| 8. **Aretxabaleta** | **15** | 10 |
| 9. **Zamudio** | **14** | 10 |
| 10. **Arenas de Getxo** | **14** | 10 |
| 11. **Elgoibar** | **14** | 10 |
| 12. **Santurtzi** | **12** | 10 |
| 13. **Leioa*** | **11** | 9 |
| 14. **Durango** | **11** | 10 |
| 15. **Portugalete** | **10** | 10 |
| 16. **Laudio*** | **9** | 9 |
| 17. **Retuerto** | **8** | 10 |
| 18. **Lagun Onak** | **7** | 10 |
| 19. **Eibar B** | **7** | 10 |
| **20. Salvatierra** | **6** | 10 |

* Partidu bat gutxiago

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Baskonia | 1-0 |
| Zamudio-Lagun Onak | 1-0 |
| Retuerto-Santurtzi | 2-3 |
| Portugalete-Durango | 2-2 |
| Real Sociedad B-Eibar B | 4-0 |
| Salvatierra-Gernika | 2-4 |
| **Aretxabaleta**-Zalla | 0-1 |
| Amorebieta-Arenas de Getxo | 3-2 |
| Leioa-Laudio | bukatu barik |
| Amurrio-Beasain | 1-0 |

**Hurrengoak**

Gernika-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroa** | **18** | 6 |
| 2. **Zarautz** | **12** | 6 |
| 3. **Pasajes** | **12** | 6 |
| 4. **Hondarribia** | **11** | 6 |
| 5. **Oiartzun** | **11** | 6 |
| 6. **Idiazabal** | **10** | 6 |
| 7. **Hernani** | **10** | 6 |
| 8. **Aloña Mendi** | **10** | 6 |
| 9. **Ordizia** | **9** | 6 |
| 10. **Tolosa** | **9** | 6 |
| 11. **Berio** | **9** | 6 |
| 12. **Bergara** | **7** | 6 |
| 13. **Trintxerpe** | **7** | 6 |
| 14. **Euskalduna** | **5** | 6 |
| 15. **EHU Vasconia** | **4** | 6 |
| 16. **Mondra** | **4** | 6 |
| 17. **Real Union** | **2** | 6 |
| 18. **Beti Gazte** | **1** | 6 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Ondarroa-Berio | 3-2 |
| Euskalduna-**Aloña Mendi** | 0-2 |
| Trintxerpe-**Bergara** | 0-2 |
| Vasconia-Tolosa | 0-1 |
| Idiazabal-Hondarribia | 0-1 |
| Zarautz-Pasajes | 2-1 |
| Ordizia-Real Union | 2-1 |
| Hernani-**Mondra** | 4-2 |
| Oiartzun-Beti Gazte | 2-1 |

**Hurrengoak**

**Mondra**-Ordizia
**Aloña Mendi**-Ondarroa
**Bergara**-Euskalduna

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Getariako | 4-0 |
| Aretxabaleta B-Zestoa | 1-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Bergara-Urki | 6-2 |
| Gazteak-UDA Arizmendi | 2-1 |
| Mondra-Eibartarrak B | 6-0 |
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Sestao-Aretxabaleta | 1-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Amorebieta | 2-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Mondra-Beasain | 2-3 |
| Aloña Mendi-Ondarroa | 1-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Aretxabaleta B-Arizmendi | 4-1 |
| Urki-Bergara | 4-1 |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Beasain-Bergara | 1-0 |
| Aretxabaleta Arizmen.-Zumaiako | 1-1 |
| Aloña Mendi-Eibar B | 2-4 |
| **KADETEEN 1. MAILA** | |
| Arizmendi-Elgoibar | 1-4 |
| Urki-Aloña Mendi | 2-3 |
| Aretxabaleta B-Arrasate | 1-3 |
| Bergara B-Eibartarrak | 3-3 |
| **INFANTILEN OHOREZKO MAILA** | |
| Ilintxa-Aloña Mendi | 1-0 |
| Bergara-Aretxabaleta Arizmendi | 3-3 |
| Arrasate-Lagun Onak | 4-2 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Aloña Mendi-Eibar B | 1-7 |
| Mondra-Bergara | 7-2 |
| Arizmendi | Atsedena |

**LEHENENGO MAILA** > 3. JARDUNALDIA

# Arrasatekoek ez zuten garaipenean sinistu

## Nortasun gutxi erakutsi zuten Zurbanoren mutilek, eta nafarrek gogotik ospatu zuten irabazi izana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**58-68**
ARDOI

**MU** > Arantzabal (3), M. Anasagasti (10), X. Anasagasti (28), Moracho (2), Bidaburu -hasierako bostekoa-, Barbero (4), Isasa (6), Gonzalez (5), Rodriguez, Zabalo, Igoa eta Barrena.

**Ardoi** Urtasun (22), Arbeilar (15), Janices (13), Diez (6), Irisarri (2) -hasierako bostekoa-, Gueye (1), Ribero (6), Guillen (3) eta Abaurrea.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 12-22. Bigarren laurdena: 31-31. Hirugarren laurdena: 45-49. Laugarren laurdena: 58-68.

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE
Javier Zurbano Arrasatekoen entrenatzaileak partidu amaieran adierazi zuenez, astea nola joan zen ikusita, etxeko teknikariek bazuten fedea Ardoiren aurkako partidua irabazteko. Ointxeko jokalariek, baina, oso hotz ekin zioten lehiari. Defentsan, ez ziren gai izan aurreneko minutuetan nafarrek egin zituzten trantsizio azkarrak geratzeko, eta jokaldi gehienak saskiratzeekin amaitu ziren. Kanpokoen jokalari berak, Janicesek, egin zituen euren aurreneko 13 puntuak, hiruko marratik erakustaldia eginda. Eta etxekoak oraindik estreinatzeke.

Xabi Anasagastiren eta Iker Barberoren jokaldi batzuekin, MU partiduan sartzeko gai izango zela zirudien, baina erasoan irabazitakoa defentsan galtzen zuten etxekoek aurreneko laurdenean.

**ITXAROPENERAKO MINUTUAK**
Bigarren laurdena aurrenekoa moduan hasi zen, eta Ardoik orduan hartu zuen partiduko alde handiena, 15 puntukoa. Baina Xabi Anasagastik erantzukizuna hartu zuen orduan erasoan, eta defentsan ere txukunago jarri zen MU. Etxekoek hartu zuten jokoaren ekimena, ezustean harrapatu zuten Ardoi, eta 17 eta 1eko partzialarekin neurketa berdinduta iritsi zen atsedenera. Baikor ziren Zurbanorenak.



Erasoan boladaka jokatu zuen Mondragon Unibertsitateak. JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren laurdenean MUk estutu egin zuen defentsan. Ardoi ezinean ari zen. Xabi Anasagastik erasoan denak sartzen jarraitzen zuen, eta nafarrak etsipenean erortzen ari ziren. 41 eta 35 jarri zen aurretik etxeko taldea, baina zailena egin ostean, berriz ere partidutik joan zen. Laurdeneko azken hiru minutuetan 4 eta 14ko partzial bat jasota, berriz ere atzetik ziren moreak; eta okerrena, sentsazioak ez ziren onak azken laurdenari ekiteko.

Hala ere, aurreneko erasoan Mikel Anasagastik egindako hiruko bati esker, bazirudien lehiara itzuliko zela MU. Baina ez zen horrela izan. Defentsan huts egin zuten arrasatearrek, eta erasoan ez zuten jaurtitzeko lekurik topatzen. Honek eta behartu gabeko hainbat hutsegitek porrotera eraman zuten Zurbanoren taldea.

**SASKIBALOIA**

# MUk irabazi du ligako lehen partidua

## Soraluce-BKE B taldearen aurka azken laurdenean erabaki zen emaitza

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Gipuzkoako Senior mailako txapelketan lehen jardunaldia izan zuten asteburuan eta Labegaraietan aurrez aurre izan ziren Soraluce-BKE B eta Mondragon Unibertsitea taldeak.

Partiduaren hasieran bi taldeek maila bertsua erakutsi zuten eta atsedenaldian bergararrak lau puntu goitik ziren markagailuan. Hirugarren laurdenean, ordea, bergararrek euren joko maila pixka bat jaitsi zuten eta arrasatearrak aurreratu zitzaizkien: 28-32.

**ARRASATEARREK ALDE HANDIA**
Partidua nahiko ongi joan zen arren, azken laurdenean gauzak hankaz gora jarri zituzten Mondragon Unibertsitatea taldeko mutilek. Laugarren zatian 10 puntu gora egin zuten arrasatearrek. Bergararren aurka kiroltasunik gabeko falta seinalatu epaileak eta hori izan zen Soraluce-BKE Bkoak ordura arteko euren jokotik kanpora ateratzeko arrazoia. Horrela, bidea erraztu zieten arrasatearrei eta partidu amaierako emaitza 35-56 izan da.

**MAILA AUTONOMIKOA** > 3. JARDUNALDIA

# Uztaipean landu, eta kanpotik errematatu

ALOÑA MENDI
**92-72**
EHU ARABA

**J.I.** > OÑATI
Hasierako minutuetan baino ez zion eutsi EHU Arabak Aloña Mendiri. Poliki-poliki aldea hartzen joan ziren etxekoak, eta lehenengo laurdena 11 puntukoarekin amaitu ostean (27-16), hau handitu egin zen hurrengoetan.

Garaipena uztaipean oinarritu zuen Aloña Mendik. Barruko jokoan erraz ibili ziren gorriak. Iñigo Biainek 23 puntu egin zituen, eta Mallabiabarrenak 19. Etxekoen jokalari garaiak geratu nahian, arabarrek itxi egin zuten defentsa, eta orduan kanpoan aurkitu zituen Xabi Igartuaren taldeak erraztasunak. Kanpoko jaurtiketetan fin ibili zen Jagoba Gamarra, eta 21 puntu egin zituen.

Atsedenaldira 10 puntuko aldearekin iritsi ziren etxekoak (43-33), baina hirugarren laurden hasiera bikaina egin eta erabakita utzi zuten lehia, 17 eta 0eko partzialarekin. Datorren jardunaldian Getxon ariko dira oñatiarrak, iaz maila bat gorago zebilen taldearen kantxan.



Iñigo Biain nagusi izan zen uztaipean, eta 23 puntu egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Candy-Allerru | 72-60 |
| Ointxe Arrasate-DKS | 73-63 |
| Ainhoa taberna-Aloña Mendi | 78-66 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Alde Zaharra-Eskoriatza | 51-58 |
| Aloña Mendi-Añorga | 28-73 |
| **GAZTE MUTILAK, EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Mugarri Alkesa-Santurtzi | 71-77 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-La Salle | 46-50 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Kortazar-Txirrita-Carnicas S.M. | 30-44 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Gros Xake Loiola-Ford Mugarri | 54-60 |
| Bergara-Easo Basoa | 48-36 |
| Erroibide-Construcciones Alkesa | 49-59 |
| Krafft Atco. Sn Sn-Aloña Mendi | 47-32 |

**GIPUZKOAKO GAZTE MAILA** > 3. JARDUNALDIA

# Oñatiarren talde lana gailendu zitzaion etxekoen banan banako jokoari

Hasieratik nagusi izan ziren txantxikuak, eta urdinek gabezia asko erakutsi zituzten

BERGARA SORALUCE
**24-31**
ALOÑA MENDI


Bergara baino gehiago izan zen Aloña Mendi jokoaren esparru guztietan. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > BERGARA
Gipuzkoako gazte mailako txapelketan, debagoiendarren arteko derbya izan zen domekan Labegaraietan. Orain arte bakoitzak jokatutako ligako partidu bakarra galduta, lehenengo garaipenaren bila kantxaratu ziren bi taldeak, eta oñatiarrendako izan zen hau.

Hasieratik izan ziren nagusi gorriak. Minutuak pasa ahala, aldea handitzen joan ziren; atsedenaldian lau golekoa zuten, bigarren zatian hamarrekoa izatera iritsi ziren, baina azken txanpan apur bat erlaxatu eta zazpikoan geratu zen. Behin ere ez zuten garaipena arriskuan izan.

**JOKO DESBERDINA**
Datu adierazgarria da bergararren gol denak lau jokalariren artean egin zituztela, batez ere hegaletik. Pibota eta ertzak ez zituzten apenas erabili, eta ez ziren, ohikoa den bezala, kontraerasoan atera. Badute zer hobetu mahoneroek.

Aloña Mendin, berriz, jokalari denek jokatu eta egin zuten golen bat. Geldikako erasoak egin zituzten, eta baloia ondo mugituz erraz lortu zuten etxekoen defentsa zulatzea.

> EUSKADIKO SENIORRAK

### Ford Mugarri lidertzan sendo, Barakaldon irabazita

26 eta 27 irabazi zuten Arrasatekoek Barakaldoko kantxa zailean. Lehenengo zati parekatu baten ostean (15-13), bigarrena gaizki hasi zuten.

Barakaldok bost goleko aldea hartu zuen defentsari eta kontraerasoei esker. Baina Ford Mugarrik 3-2-1 defentsa jarri eta buelta eman zion.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **GIPUZKOAKO SENIOR MUTILAK** | |
| Donibane-Aloña Mendi | --- |
| Irungo Gaztiak-Soraluce BKE | 28-27 |
| **GIPUZKOAKO KADETE MUTILAK** | |
| Arrate-Arrasate | 36-20 |
| Legazpi-Aloña Mendi | 13-33 |
| Leizaran-Soraluce BKE | 28-29 |
| **GIPUZKOAKO GAZTE NESKAK** | |
| Jauja-Bergara Soraluce | 30-11 |
| **GIPUZKOAKO KADETE NESKAK** | |
| Ereintza-Aloña Mendi | 35-8 |

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

GARANTIA DE ALQUILER



• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:**
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• **Fiskala:**
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontabilidadea:**
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es*

**MENDI BIZIKLETA** > ARRASATEKO ETA ESKORIATZAKO MARTXAK

# Esku-hartze eta ibilbideekin pozik antolatzaileak eta txirrindulariak

Batez beste 200 lagunek hartu dute parte Mendi Bizikleta Zirkuituko martxa bakoitzean

**I. AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Asteburuan egin dituzte Debagoieneko Mendi Bizikleta Zirkuituko azken bi martxak; Arrasatekoa eta Eskoriatzakoa. *Goienkaria*-n botatako erronkari –*Ezetz egin bi martxak!*– erantzun eta izan zen bietan parte hartu zuen txirrindularirik.

Zapatuan, eguraldi hotz baina zeru eguzkitsuak 180 lagun inguru erakarri zituen Arrasateko bide zidorretara. Antolatzaileak gustura zeuden ibarreko jendeaz gain, Mirandatik, Hondarribitik eta Bilbotik etorritako txirrindulariak ere bazirelako eta ibilbidean barrena pozik ibili zirelako denak ere.

**AZKENA ESKORIATZAN**

Domekan, Eskoriatzako ibilbidea gogorra izan arren, 200 lagunetik gora izan ziren irteeran. Bizikleta martxan barrena bi istriputxo izan baziren ere, antolatzaileak oro har pozik zeuden sortutako giro politarekin.

Zirkuituko martxa denak amaituta, antolatzaileak balorazio baikorra egin dute eta pozik daude mendi bizikleta zaleek emandako erantzunarekin, izan ere, batez beste 200 lagun ibili dira bizikleta irteera bakoitzean.

Gatzagako, Oñatiko eta Bergarako martxetako argazkiei Arrasaten eta Eskoriatzan ateratakoak gehituko dizkiete eta denak, martxen gaineko informazioarekin batera, ikusgai ipiniko dituzte *www.goiena.net/blogak/debagoienamtb* helbidean.



Arrasateko martxan (argazkian) 180 lagun inguruk hartu zuen parte; Eskoriatzakoan, berriz, 200dik gora izan ziren txirrindulariak. JOSETXO ARANTZABAL



Garagartzan geratu ziren, jan eta edanez, indarra berreskuratzeko. J. A.



Adin guztietako jendea izan zen Eskoriatzako bizikleta martxan. J. A.

**BOSTEKO FUTBOLA** > ZALDIBARKO TXAPELKETA

# Betrayer sailkapenean lehenengo tokian jarri da

Iazko txapeldunek 16-3 irabazi zuten txapelketan berria den Steaua del Grifo taldearen aurka



Ekaitz eta Iluntz taldeen arteko norgehiagokan ikusi zen bien arteko 'pike'. sanoa JOSETXO ARANTZABAL

**I.A.** > ARRASATE

Atsedenaren ostean, zapatuan ekin zioten berriz ere Zaldibarko bosteko futbol txapelketari izena eman duten 16 taldeetako jokalariek.

Antolatzaileen esanetan, "hasiera lasaia" izan du txapelketak. Hala ere, lehenengo jardunaldia izanik, jendea gogotsu azaldu zela ere esan digute.

Lasai joan zen arren, gorabeherarik ere izan zen lehen partiduetan. Zapatuan, esaterako, Iluntz eta Ekaitz taldeek urtero izan ohi duten lagun arteko *pike*-aren ondoren, Ekaitzekoak 4 eta 3ko emaitzarekin irabazle izan ziren.

**PARTIDURIK LEHIATUENA**

Domekan jokatu zen lehen jardunaldiko partidurik lehiatuena, Lasagabaster eta McAwen Dauen taldeen artekoa. Emaitzari begiratu besterik ez dago, horrela izan zela ikusteko; izan ere, hirunako berdinketarekin amaitu zuten norgehiagoka.

Iaz ere ondo ibilitako taldeek erakutsi zuten joko ona egiten badakitela, Dribling eta Betrayer taldeek, esaterako. Azken horrek aurtengo txapelketan berria den Steaua del Grifo taldea izan zuen aurrez aurre eta 16 eta 3 irabazi zuten iazko Zaldibarko txapelketako irabazleek sailkapenean lehenengo tokia hartuz.

Josune Bereziartu > Eskalatzailea

# "Mendian nire tokia aurkitu dut eta mendian ikusi ditudan balioetan, nire askapena"



Josune Bereziartu, Arkupe aretoan, ikus-entzunezkoa hasi aurretik.

A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Arkupen izan zen eguenean Josune Bereziartu (Lazkao, 1972) eskalatzailea. 1998an bere lehenengo zailtasuneko 8cx egin zuen eta 2002an emakumezko baten lehenengo 9a. 2006an FEDME Ekintzarik Onenaren saria eman zion Bereziartuari. Eskaladak eman diotena azaldu digu.**

***Bide berriak, ilusio berriak* ikus-entzunezkoa aurkeztu duzu. Zeintzuk dira gaur egun Josuneren ilusioak?**

Hasierako ilusio berak direla esan daiteke. Orain arteko ibilbidean gogor egin behar izan dut lan. Lan horrek eskatzen du esfortzu bat; eta, era berean, esfortzu horrek sakrifizio bat eskatzen du. Beharbada, esfortzu hori orain bide ezberdinetatik egiten dut. Nire hastapenak izan ziren kirol eskaladan; eta han, nolabait, izena egin nuen; baina azkeneko urte hauetan fusio edo sintesi bat egiten nabil, Rikarrekin batera, alpinismoaren munduan. Hortaz, nolabait, kirol eskaladaren zailtasun edo espiritu hori, dela purua eta gogorra, fusionatzen gabiltza alpinismoaren filosofiarekin, dela konpromisoa.

**Alpinismoa konpromisoa dela diozunean zer esan gura duzu?**

Konpromisoa dauka erorketa arriskuarekin, adibidez. Min har dezakezu, aseguru puntuak ez direlako kirol eskaladan besteko ziurrak. Horretan datza konpromisoa.

Baina esan behar da horrek gogobete egiten duela. Estilo bat jarraitzen da, eta nik ezagutu nuen mendiarekiko erromantizismo edo nobletasun horren berreskuratzea da alpinismoa. Hortaz, ilusioa eta esfortzua berrelikatu egiten dira.

**Hortaz, gaur egun mendian buru-belarri sartuta zaude.**

Bai, hala da. Alpinismo munduan nabil, baina baita kirol eskaladan ere. Biak aurrera eramateko instrumentuak betikoak dira: norberaren borondatea, esfortzua, diziplina...

**Zeintzuk dira aurrera begira dituzun erronkak?**

Orain, hilabete hauek trantsiziokoak izaten dira. Udan Ordesa aldean eta Alpeetan ibili gara. Baina, aurrerantzean, paretan ibiltzeko hotz handiegia egingo du, eta baita euria ere. Baina erronkak baditut! Ilusioa dagoen bitartean beti daude erronkak.

**Hastapenak haitzean egin zenituen, gero lehiaketara pasa zinen eta orain berriro haitzera. Zer ematen du haitzak?**

Bihotza mugitzeko zirrara sentitu behar da, emozioak oso garrantzitsuak dira. Puntan-puntan ibiltzeko behar den diziplina eta borondatea eta egin behar den esfortzua oso handiak dira. Orduan, motibazio materialak bakarrik ez du balio. Akaso, momentu batean laguntzen du, baina ez da nahikoa. Zirrara sentitzea beharrezkoa da niretako; eta hori aurkitzen dut mendian, naturan eta lagunen artean. Hori lehiaketak ez du ematen.

**Zergatik egin zenuen kirol eskalada?**

Egiten nuen, hain zuzen, lehiaketan oso ona ez nintzelako; eta ni oso burugogorra naiz.

**Zure lorpenen artean munduko eskalatzaile onena izatea dago. Horrek presioa sortzen du lan egiterakoan?**

Noski, presioa eta baita erantzukizuna ere. Nolabait, adibide bihurtzen zara. Lehenengoa zara, eta ondorioz adibide zara besteendako, baina baita zure buruarendako ere. Bestalde, oso polita da bide bat irekitzen ibili naizelako, batez ere nesken munduan; baina baita mutilen munduan ere. Erakusi dut, ustez, neska batek egin ezin zuena egin daitekeela. Baina puntan zaudela iparra ez da inoiz galdu behar. Oso kontziente izan behar duzu eta oinak lurrean izan.

**"Niretako, kirol eskaladan zailtasuna edo espiritua purua eta gogorra da"**

**"Nik ezagutu nuen mendiarekiko erromantizismoa berreskuratu dut"**

**2006an Espainiako Federazioak kirol eskaladako Ekintzarik Onena saria eman zizun. Horrelakoek aurrera egiteko balio dute?**

Bai, garrantzitsua izan zen saritu zutelako jarrera bat. Hori oso polita izan zen, gainontzean oso zaila delako hedabideetan hori azaltzea.

Gailurra lortzeaz gain, bide bat jarraitu duzula aitortzen badizute, oso garrantzitsua da.

**Eskalatzea kirola baino gehiago dela esango zenuke? Bizi izateko modu bat da?**

Beti esan izan dugu mendia bizi izateko modu bat dela; eta egia da. Zure bizimodua aktibitatearen inguruan mugitzen da, eta beti zaude mendian pentsatzen. Egiten dituzun gauzak mendian ondo ibiltzeko egokitzen dira: entrenamenduak, janaria... baita lagunak ere. Azken finean, bizimodu bilakatzen da.

Nire kasuan, ni beti nire tokia aurkitu nahian ibili naiz eta naturaren bakardadean aurkitu dut nire tokia. Mendian ikusi ditudan balioetan aurkitu dut nire askapena. Zer dagoen gaizki eta zer dagoen ondo badakizu; eta zuk daukazu aukera ondo edo gaizki egiteko. Hor, benetan aurkitzen duzu benetako askatasuna.

**Gainera, eskaladak bidaiatzeko aukera eman dizu. Ze leku duzu gustukoen?**

Toki bakoitzak bere xarma dauka. Baina toki berezia da, ezberdina delako, AEBetako mendebala. Euskal Herriaren ondoan oso ezberdina da.

**"Federazioaren sariak jarrera bat saritu zuen, egin dudan bidea aitortu didate"**

**"Araotz gure txokoa da, gure etxea; gure bihotzean dago eta ez da hortik mugituko"**

Kulturalki, berriz, Japonia oso gustuko dut. 40 egun egin genituen han eta handik itzuli nintzen nire bizitzeko moduan konbentzituago. Gu Tokio inguruan ibili ginen, eta, paisaia aldetik oso harrigarria ez den arren, kulturalki oso herrialde aberatsa da.

**Gurera etorrita, Araotzeko eskola dago. Zu han hasitakoa zara. Ze oroitzapen dituzu?**

Gure txokoa, gure etxea da. Pentsa, Araotz ezagutu genuen astean zehar Rikar eta biok joaten ginenean. Orduan, biok bakarrik ibiltzen ginen eskalatzen. Orain, hori ezinezkoa da. Araotz gure bihotzean dago eta hortik ez da mugituko.

**Behin eta berriz aipatzen duzu Rikar. Zer izan da zuretako Rikar alboan izatea?**

Laguntza bat da, oreka. Josune ez da altzairuzko emakumea; ni oso arrazoiduna eta hotza naiz, baina zalantzak ditut, eta baita beldurrak ere. Rikarrengan oreka hori bilatzen dut.

**AMATASUNA** > EDOSKITZAROA, SEXUALITATEA ETA BIKOTE-HARREMANA

# Normala da haurra izan ondoren denbora batez sexurako grina txikitzea emakumeei

Arrazoi hormonalak, fisikoak eta emozionalak daude, besteak beste, horren atzean

Umea izan ondorengo bikote harremanaz ere idatzi du artikulu berean Lide Azkuek, amatasunean adituak

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Zer gertatzen zaigu emakumeoi gure sexualitatearekin erditu ondoren? Nora joaten ote da gure libidoa? Galdera horiek egin eta erantzuna ematen die amatasunean aditu Lide Azkuek.

"Ugaztun eme guztietatik, edoskitzaroan umeske jartzen garen bakarrak emakumeak eta kanguru-emeak gara. Gizakioi dagokigunez, munduko leku askotan tabua da edoskitzaroan sexu-harremanak izatea. Esate baterako, Afrikako leku askotan gaitzetsi egiten da bularra ematen duen bitartean emaztearekin sexu-harremanak izatea eta beste kultura batzuetan debekatuta dago. Erdi Aroko Europan ere aberatsek inudeak hartzen eta hemen, duela gutxira arte; *koarentena* delakoan sexu-harremanik ez izatea gomendatzen zuten medikuek", dio Lide Azkuek bere artikuluan.

**ARRAZOIAK**

Amak gogoa izan bezain laster izan dezake sexu harremana, baina batzuetan gogoari kosta egiten zaio etortzea. Azkuek lau arrazoi aipatzen ditu horren erantzule moduan. "Lehenik eta behin, arrazoi hormonalak daude. Haurdunaldian estrogenoz eta progesteronaz gainezka egoten gara, eta erditu ondoren, batbatean hormona horien kopurua gainbehera etortzen da, eta prolaktina gailentzen da. Bigarrenik, arrazoi fisikoak daude: etxean haur txikia daukagunean, oso nekatuta egoten gara. Bestalde, gure gorputza guztiz aldatuta egoten da, eta emakume batzuk ez dira gustura sentitzen beren gorputz *berriarekin*. Hirugarrenik, erditzeak ere eragina izan dezake erditu ondorengo sexualitatean. Izan ere, erditzean baginan oso sentsazio gogorrak eta biziak sentitzen dira. Eta, azkenik, alderdi emozionala hartu behar da kontuan. Erditu berri duten amak bat eginda sentitzen dira haurrarekin, eta erlazio esklusiboa izaten dute haiekin lehen aste edo hilabeteetan", idatzi du Azkuek.



Ama bat bularra ematen umeari. MAMIS.CL

BIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

### Bikote-harremana zelan zaindu umea izan ondoren

Lide Azkueren esanetan, bikote-harremana ere aldatu egin daiteke umea izan ondoren, eta egoera horretatik onik ateratzeko aholku batzuk ematen ditu *Edoskitzaroa, sexualitatea eta bikote-harremana* izeneko artikuluan. "Erditu ondoren, ama gehienek bikotekidearen maitasuna, afektibitatea, laguntza eta babesa behar izaten dituzte. Besarkadak eta maitasun-hitzak behar dituzte, baina ez dute gogorik izaten sexu-harremanak izateko. Aita batzuk errefusatuta sentitzen dira, eta pentsatzen dute bikotekideak sexurik nahi ez badu, ez dituztela maite. Izan ere, amaren beharrak aldatu egiten dira etapa honetan, baina aitarenak ez, eta bikote-harremanak tentsio handia jasaten du. Bikote-harremana egoera honetatik onik ateratzeko, irtenbide bakarra komunikazioa da. Bikote arteko aliantzak inoiz baino garrantzitsuagoak dira etapa honetan. Beraz, pazientzia, komunikazioa, eta maitasun handia!".

**DISLEXIA** > IKERKETA

# 6-7 urterekin antzematen da dislexia

Faktore genetikoek eta kulturalek dislexian duten eragina aztertuko dute Donostian

**O.E.** > ARRASATE

Faktore genetikoek eta kulturalek dislexian duten eragina aztertuko dute Donostiako BCBL zentroan. Ikerketaz gain, gainera, bideojoko batzuk ere aterako dituzte, dislexia duten umeei laguntzeko.

Dislexia antzematen da umeak 6-7 urte inguru dituenean, umea irakurtzen eta idazten hasten denean, hain zuzen. Izan ere, irakurtzeko arazoak eta zuzen ezin idatzia izaten dira dislexiaren ezaugarrietako bi. Hamar umetik batek du dislexia.


Irakurtzeko eta idazteko arazoak izaten dituzte dislexikoek. SISTER PHOTOGRAPHER

**DISLEBI ELKARTEA**

"Guri pediatrak komentatu zigun gure umea dislexikoa izan zitekeela", dio Ana Cabezasek, Dislebi elkarteko kideak. "Hasieran, dislexia zuela jakin arte, kezkatuta geunden, ez genekielako umeari zer gertatzen zitzaion", jarraitu du. Dislexikoek ikasteko beste modu bat dute, eta hori landu behar dute. Dislebi elkartean gurasoak, hezitzaileak eta pediatrak daude, eta dislexia duten umeei laguntzeko informazioa elkartrukatzen dute webgunean: *www.dislexiaeuskadi.com*.

> BILDUMA

### Euskal kirolarien kromo bilduma sortu berri dute

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak 6 eta 11 urte bitarteko umeei begira egindako kromo bilduma sortu du. *Euskarians* du izena bilduma horrek eta euskal kirolariak biltzen ditu.

*Euskarians* izeneko bilduma horrek estereotipoak saihestu eta balio batzuk transmititu gura ditu. Generoaren, herrialdeen eta kirolen artean oreka zaintzeaz gain, umeek jolasa euskaraz egitera bultzatu gura du bildumak.

D ereduko Lehen Hezkuntzako umeen artean zabaldu gura dute *Euskarians* egitasmoa eta umeek euren ikastetxean eska dezakete bilduma egiteko albuma.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> DANTZA**
Antzuolako Haur Dantzarien Egunak arrakasta izan du **> 30**



**> ESTER BELLVER**
'Yo prota-agonizo' lanaren estreinu mundiala Aretxabaletan **> 31**




**> NEALTA FOLLA**
Aretxabaletako musika taldearen diskoa izan dugu berbagai **> 33**



Inoreneroni taldeko Borja gitarrarekin arnasa mozten, Eneko *frontman* paper bikainean eta Mariano ia trantzean Bergarako gaztetxean. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > ERANTZUN ETA INORENERONI

# Hardcorearen bat-batekotasuna eta indarraren kontrol neurtua

**ERANTZUN**
Zarauzko taldeak muturreko hardcore guturala eskaini zuen

**INORENERONI**
Bap!-en jarraipenak post-hardcorea giro eta ukituz jantzi zuen

**NON:** Bergarako gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 17.
**ZENBAT JENDE:** 125 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Bergarako Txapa Irratiak jarraitzen du Debagoienera kontzertu dotoreak ekartzen, kalitatea eta izena biak aldean daramatzatenak; eta, jakina, prezio merkeetan, gainera. Hala, oraingoan ere lagun talde polita batu zen gaztetxean.

Bat baino gehiago zur eta lur gelditu zen Erantzun taldearen emanaldi bortitzarekin. Anestesiaren kantu batek bataiatu zuen Zarauzko taldeak mutur-muturreko hardcorea egiten du, ia guturala; eta askorentzat ez da ohikoa halako doinu gogorrak entzutea.

Iaz kaleratutako *Hazia erneltzen duen tanta* laneko hainbat pieza jo zituzten eta, bitxikeriak bitxikeri, Motörhead-en pieza bat gordintzen saiatu ziren; eta Anestesia taldearen *Erantzun* kantua, hain justu, bertsioneatu zuten. Une horietan, gainera, Zarauzko lagunek eta hainbat bergararrek abeslaria besotan hartu zuten, giro onaren isla.

**BAP!-EN GARAPEN BIKAINA**

Jarraian, Andoain aldeko *beteranoak* igo ziren taula gainera. Jakina da Abrego anaiak eta dagoeneko taldea utzita daukan *Drake* Bap! hardcore taldetik datozela; eta talde haren garapentzat har dezakegu Inoreneroni palindromoa. Bai, hardcoretik haratago joan dira, baina post-hardcore erritmo bizi eta aldakorrera eta diskotik diskora bestelako ñabardurak gehitzen joanez. Hara non, giro ilun zein gitarra zorrotzak eta melodiak batzen dizkiote emaitzari Borjari esker, eta Enekoren ahotsa marka da dagoeneko.

Mikel bateria jotzaileak gidatzen du makineria, itzela da-eta makilekin; Borjak badirudi Alvini abizena daukala gitarra-zerra eskuan hartzen duen bakoitzean, eta Marianok bestelako pultsua ematen die kantuei eta giroei. Eta, azkenik, zer esan Eneko abeslariaz? Mila gudatan zaildutako abeslaria, estilo oso pertsonala eta umore kutsakorra dauzkana. Emanaldi bikaina, erabat!


Jorrai-dantzak txalo beroenak jaso zituen. J. B.


Mutilak Txakarrankuaren unerik ikusgarrienean. J.B.

**KRONIKA** > HAUR DANTZARIEN EGUNA

# Dantzari txikien erakustaldi handia

**ZENBAT HAUR:** 160 bat inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.
**HERRIAK:** Antzuola, Arrasate, Oñati, Soraluze eta Legazpi.

**JON BEREZIBAR** > ANTZUOLA

Historia luzeko eguna da dantzari txikiena; 35 urte dira ospatzen dela eta domekan Antzuola izan zen harrera egin zien herria. Oinarin dantza taldekoek gonbidatuta joan ziren Arrasateko (Lore Gazteak), Oñatiko (Oñatz), Soraluzeko (dantza kontuetarako debagoiendartzat har daitezke Urrats dantza taldekoak) eta kanpoko gonbidatu moduan Legazpiko dantzari txikiak, Korostikoak, hain zuzen ere. Goizean goiz hasi ziren atzo taldeka herriko kaleetatik txistularien laguntzarekin, baina ikuskizuna eguerdi aldera etorri zen alardea egin zutenean. Lehenengo, neskak batetik (esku-dantza, arku-dantza eta makil-dantza egin zituzten) eta gero mutilak (launakoa, jorrai-dantza eta txankarrankoa), bestetik, elkarrekin gorularia, arin-arina eta fandangoa dantzatzen amaitu zuten herriko plazan.

**BAZKALORDUA**

Hori bazkal aurretiko saioa izan zen. Neska-mutikoek antzuolarren etxeetan bazkaldu eta gero, atzera ere joan ziren arratsaldean plazara bigarren alarderako. Bigarren hori berezia izan zen guztiek elkarrekin *7 jauzi* dantzatu eta gero, talde bakoitzak saio berezi bat egin zuen-eta. Antzuolarren kasuan Trokeo dantzetako makil handi-dantza egin zuten; hain zuzen, Antzuolako jaietan egin ohi duten dantza berezia. Aipatzekoa eguna primeran joan bazen ere, ibarreko dantza taldeen presentzia urria izan zela. Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako taldeen gabezia sumatu zen atzo Antzuolan egin zuten haur dantzarien egun politean.

**KRONIKA** > NAZIOARTEKO ORGANO ERROMANTIKO ZIKLOA

# Maisuaren maisutasuna


Schmiedlin San Martingo organoan. J.A.

**NON:** Bergarako San Martin elizan.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 17.
**MUSIKARIA:** Cyrill Schmiedlin
**JATORRIA:** Suitzarra.

**J.B.** > BERGARA

Ospe handiko kontzertistak ez zuen huts egin Bergaran bakarrik gozatzeko aukera zegoen zitan. Basileako St. Marian elizako maisua da Cyrill Schmiedlin eta haren maisutasuna sobera erakutsi zuen Bergarako San Martin elizako organo erromantikoan. Errepertorioa ere ez zen izan kontuan hartu barik uzteko modukoa: Cesar Francken *Troisième Choral en la mineur*, Maurice Duruflèren *Sicilienne* eta Charles-Marie Widoren *Symphonie VI Op.42* izan ziren piezak. Maisuen lanekin erakutsi zuen maisu ere denak, beraz, haren maisutasuna. Organoez gain, abesbatza handien zuzendari ere bada Schmiedlien.

**TXISTUA ETA ORGANUA**

Hurrengo hitzordua hilaren 24an izango da Andoni Egaña, Jose Ignazio Ansorena (txistua) eta Aitor Olearekin (organoa).


JOSETXO ARANTZABAL

## Rockaren klasikoak modu akustikoan

Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak, Arima Beltza taldeko kideak biak, hitzordu bikoitza izan dute asteburuan gurean, Eskoriatzan Inkernun egubakoitzean eta Arrasateko, Gure-Lekun zapatuan (irudian). Gitarra bana, ahotsa eta aho-soinua besterik ez zuten behar izan, rockaren eta poparen (bereziki Beatles) kantu ezagunak jotzeko.

**ANTZERKIA** > 'YO PROTA-AGONIZO'

# Antzerki klasikoa eta berria, biak batean

**NON:** Aretxabaletako Arkupen.
**EGUNA:** Egubakoitza, urriak 16.
**ZENBAT JENDE:** 40 bat lagun.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA

Arkupeko Zaraia aretoan ezohiko ikuskizuna izan zen egubakoitzean. Madrilgo Ester Bellver aktoreak *Yo prota-agonizo* antzezlanaren estreinaldia egin zuen. Horren *errua* izan zuen antzerkian ere buru-belarri ibiltzen den Txaro Gallego aretxabaletarrak; berak egin zion gonbidapena-eta.

Bellverrek eskarmentu handia dauka antzerki klasikoan eta baita dantzan eta errebistan ere. Horiek guztiek lekua daukate ikuskizun existentzial horretan.

**BILUZIK ANTZEZTUTA**

Baina, ikuskizun horrekin, pauso bat haratago joan da Madrilgo aktorea. Hain zuzen ere, ordu eta erdiko bakarrizketa-antzezlana biluzik egiten du; eta, badaezpada, horren berri ematen die ikusleei lehenengo minutuan.

Aktorea zentzu askotan biluzten da, baina lana ez da pentsatu daitekeen bezain erasokorra; hain zuzen ere, formatua edo lehenengo kolpea batzuendako halakoa izan daitekeen arren, ez du ikusleen sentsibilitatea kolpatzen. Esate baterako, sexuari dagokionez, bere baginaren gaineko pasarte bat da esplizituena.

**PROTAGONISTAREN GAITZAK**

Baina, kontua ez zen esplizitua izatea edo inor beldurtzea. Ikuskizunaren mamia da agertoki gainean lan egiten duen protagonistaren ahultasunak, zalantzak eta oroitzapenak antzezlana egin bitartean plazaratzea; eta, bide batez, horrek guztiak antzezlanaren parte bilakatzea.

Hori guztia ikusleei erakusteko, Bellverrek haurtzarora jotzen du askotan, eta baita antzerkian (ustez) izan dituen arrakastak eta gorabeherak aintzat hartzen ditu. Hala, erritmo bizi-bizian dozenaka erregistro eta karakterizazio egiten ditu berak bakar-bakarrik. Aldaketa azkar horiek batzuetan surrealismo kutsua hartzen dute, baina seguruenik modu horretan aktorearen ezinegona irudikatu gura izan du.

Ordu eta erdi ziztu baten pasatzen da umorea, kritika eta galdera ugari uztartuta.



Ester Belverrek biluzik egin zuen bakarrizketa-antzezlana. GOIENKARIA




Estreina ezazu
HONDA bat
EuskadikoKutxarekin
Eskaintza berezia
HONDA
%17tik
%29ra
arteko
beherapena
Honda Civic, Accord Sedan, Accord Tourer eta CRV.
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

GURE TALDEAK

## Neallta Fola



Argazkian, ezkerretik eskuinera, *Kanu*, Gorka eta Karlos. NEALLTA FOLA

# "Melodia ona dugula ziurtatu arte ez dugu kantua bukatzen"

Aretxabaletako hirukoteak 'Iraultza' izeneko diskoa grabatu du Ondarroako Santos estudioan, Ander Shinona teknikariarekin

Punka egiten dute; The Clash, Peter and The Test Tube Babies, Daily Terror eta Templars dira euren talde erreferenteak, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

**Gorka bateria jotzailea, *Kanu* baxu jotzailea eta Karlos gitarra jotzailea dira Neallta Fola taldeko kideak. *Iraultza* izeneko diskoa kaleratu dute. Diskoaren eta emango dituzten zuzenekoen gainekoak kontatu dizkigu hirukoteak.**

**Hasteko, nondik dator zuen izena?**

Neallta Fola gaelikotik dator (Irlandako hizkuntza zaharra). Nealltak *laino* esan nahi du eta Folak *odola*. Betidanik gustatu izan zaigu zeltarren mundua, eta izen ezberdina nahi genuen.

**Gustura zaudete diskoarekin?**

Nahiko gustura gelditu gara emaitzarekin. Lehen aldia zen grabazio estudio baten sartzen ginena; eta, hori kontuan hartuta, nahiko pozik gaude. Gainera, melodiari garrantzi handia ematen diogu. Ez gara kantuak txurroak bezala egiten dituen talde bat. Melodia ona dugula ikusi arte ez ditugu kantuak bukatutzat ematen.

**Non grabatu duzue diskoa? Gogorra izan da?**

Diskoa Ondarroako Santos estudioan grabatu genuen Ander Shinona teknikariarekin. Egia esan, genituen baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, konforme gaude. Aurretik han grabatu zuten beste talde batzuen diskoak entzun genituen eta soinua asko gustatu zitzaigun. Grabazioa nahiko gogorra izan da, hirurok elkartzeko arazoak izan genitue-lako, baina izugarrizko esperientzia izan da, eta oso ondo pasatu dugu.

**Punka egiten duzue, baina nahiko irekia da. Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Punkan oinarritzen gara, baina betidanik gustatu izan zaigu musika entzutea, eta asko ikasi dugu beste talde batzuekin. Beti gabiltza soinu berezien edo ezohikoen bila. Gure talde erreferenteak asko dira, baina batzuk aipatzearren, The Clash, Peter and The Test Tube Babies, Daily Terror eta Templars aipatuko genituzke.

**Zeri buruzko letrak idazten dituzue? Zertan inspiratzen zarete?**

Gure kantuak ez ditugu erabiltzen bakarrik protestatzeko edo zirikatzeko. Gure barruan ditugun arazoez asko idazten dugu, edo jendeak begiak zabaldu eta ipurdia sofatik altxatzeko ordua dela esateko.

**Hirukotea zarete. Beste gitarra bat sartzeko beharra ikusten duzue?**

Oraingoz, behintzat, ez dugu behar hori ikusten. Nahiko soinu garbiak egiten ditugu. Dena den, hirukote izanik biluziago gaude zuzenekoetan, hutsak gehiago antzematen dira-eta.

**Musika talde asko zaudete Aretxabaletan?**

Zazpi talde gabiltza. Dena den, Aretxabaletan zailena da taldearekin aurrera egitea. Ez dugu kontzertuak egiteko lekurik eta inguruko herrietara joaten gara lehenengo zuzenekoak egitera. Gainera, gaur egun Aretxabaletako taldeok erabiltzen ditugun lokalak bota egingo dituzten zurrumurrua entzun dugu. Ziur eraikin horretan egingo dituzten proiektuetan ez garela musika taldeak eta gazteak sartzen!

**Nola uztartzen ditu Gorkak musika eta futbola?**

Ez da erraza. UDA hirugarren mailan dagoenetik futbolak denbora luzea kentzen dio Gorkari. Bestalde, hirurok gabiltza ikasten edo lanean. Hirurok elkartzeko larri ibiltzen gara, baina aurrera egiteko nahiko indar dugu.

**Kontzertuak lotu dituzue?**

Orain arte asko egin ditugu eta harrera ona izan dute. Bide beretik jarraitu nahiko genuke!




### Melodiaren eta iluntasunaren arteko punka

Aretxabaletako hirukotearen estreinako diskoa lehenengo aldiz entzutean sentsazio berezia izan nuen. 80ko hamarkadako kutsuko punk talde irmo eta zakarra izango zela uste nuen; horren ordez, Oi!-aren eraginak aurkitu nituen. Baina ez hori bakarrik, abestien introak, gitarra doinuak eta melodiak bereziak dira, ezohikoak.

Hala, gehiago arakatuz gero, Ingalaterrako postpunkaren eta Alemaniako punk taldeen ukitua ere aurkitu daiteke. Ibarreko punkari haize berria ekarri diola uste dut.

**Iker Barandiaran.**

# iragarkilaburrak.com

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altsasu.** Duplex-atikoa salgai Altsasuko Zubeztia kalean. 150 metro koadro. Deitu 948 46 73 51 edo 648 78 96 75 telefonoetara.

**Arbizu.** Lau logela, komuna, egongela eta sukaldea ditu. Erdi jantzita. Bajeratik sarbide zuzena duena. Deitu 628 15 30 83 telefonora.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659 64 67 38

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen: 105 metro koadro, lau logela, bi bainugela, balkoia eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektrogailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago nahi baduzue: *www.ttiki.com/6609 webgunean edo* 656 73 11 43.

**Bergara.** Alde zaharrean etxebizitza salgai. Bi logela. Berritua eta jantzita. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 605 73 37 39

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94 616 64 19 edo 94 613 90 56 telefonoetara.

**Eibar.** Pisua salgai Eibarren. Hiru logela, egongela, jangela, komuna eta ganbara. Teilatu eta fatxada berriak. 200.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 627 63 52 47.

**La Mongie.** Apartamentua salgai. Eskiatzeko pistetan bertan, logela literarekin, komuna, sukalde-egongela ohe-sofarekin eta terraza pistetara begira. Trastelekua eta garajea ere baditu. 80.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 629 32 84 53

**Olazti.** Herrigunean dagoen etxe bat salgai Olatzagutian. 120.000 euro. Deitu 650 53 79 83 telefonora.

**Oñati.** Kale Zaharrean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, trastelekua eta komuna. Kanpoaldera begira. Ia berria. Saltzeko prest. 230.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 24 21 21

**Ordizia.** Guztiz eraberritutako pisua salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia eta trasteroarekin. Interesatuek deitu: Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 620 45 79 73

**Orio.** Etxebizitza salgai Orion. Hiru logela, igogailua, sukaldea dena jarrita,armairu enpotratua eta trastelekua ere bai. 47.000.000 pezeta, negoziatu daiteke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 653 74 25 76

**Uharte Arakil.** 175 metro koadrokoa. Sukaldea, egongela tximiniarekin, hiru logela, bi komun, 50 metro koadroko garajea. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 615 74 34 90.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Berriztatzeko baserria, etxea edo txaleta erosiko nuke Arrasate-Garagartza edo Gesalibarren. Interesatuok, mesedez, bidali mezu bat *gurekontaktua@gmail.com* helbidera edo deitu telefono honetara: 689 54 32 85

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Altsasuko Santo Kristo auzoan berriki eraikitako pisua alokatzen da. Guztiz jantzia eta garaje plaza alokatzeko aukerarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 67 99 35.

**Altsasu.** Lau logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko gertu dago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 620 12 43 85.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztiak kanpora begira. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 652 71 16 20 edo 943 79 81 63

**Luz Saint Sauveur.** Luz Saint Sauveur. Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako aproposa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 670 49 84 28

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699 78 47 49

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 675 euro hilero. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645 71 98 84

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Logela bateko apartamentua alokatuko genuke Arrasaten. Egoera onean egotea ezinbestekoa izango da. Interesatuek hurrengo telefonora deitu: 658 74 82 17

**Ataun.** Etxebizitza behar da alokairuan Ataunen. Pertsona helduak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 665 70 53 73

**Bergara.** Premiazkoa da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 666 01 13 42

**Bergara.** Etxebizitza edo baserria errentan hartuko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 658 77 90 46

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logelakoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 658 70 19 53

**Tolosa.** Tolosa edo Tolosaldean pisu bat hutsik baduzu, gustura alokatuko nizuke. Baratzea jartzeko tokia badu gainera askoz hobe. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 626 73 70 49.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Partekatutako etxe batean bi gela ematen dira errentan. Internet erabiltzeko aukerarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 600 09 56 18

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxea osatzeko erdialdean. Egoera oso onean. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. 235 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 74 42 37

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699 28 99 06

**Arrasate.** Erguin aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 628 76 25 00

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko ikasleak behar ditut. Uriburu kalean, Erguineko auzoan, unibertsitatetik gertu dago. Merkea da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 663 72 37 44

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 618 00 08 28

**Donostia.** Amaran, Topo eta autobus geltokitik hurbil gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikasle edo langile. Pisua konpartitua da eta gehienez 3 lagunekoa. Gela argitsua, balkoiarekin eta gelan telebista dauka. Telefonoa: 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi

**Donostia.** Gela alokatzen dut Egia auzoko etxe batean, irailaren 26tik ekaina bitartean. Etxea oso txukuna da, eta baita gela ere: ohe bikoitza, silloia eta armarioa. Gladys Enea parketik eta Tabakaleratik oso gertu. Bakarrik bizi naiz. Interesatuta egonez gero, bidali mezua *sansebastian70@yahoo.es* helbidera. Mila esker.

**Eibar.** Osakidetzakolangileak Eibarren logela hartuko luke alokairuan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 692 11 43 52. Karmele.

**Iruñea.** Azarotik aurrera pisua osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Langilea. 220 euro gehi gastuak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 669 72 51 70.

**Lazkao.** Logela bat alokatzen da Lazkaoko pisu batean. Deitu 678 22 80 31 telefonora, edo bidali mezua: *lalianzuinelli@hotmail.com*

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 02 56 56

### 203. ERRENTAN EMAN

**Eibar.** Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin.Prezio interesgarria. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 630 39 11 12

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Bolu inguruan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 675 70 50 43

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 679 62 69 64.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN HARTU

**Alokairuko taberna baten bila.** Taberna bat errentan hartuko nuke Getarian edo inguruko herriren batean. Informazio gehiago nahi duenak deitu telefono zenbaki honetara: 647 48 62 32

**Taberna hartuko nuke errentan.** Debagoienean.Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638 10 29 63..

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

**Bergara.** Pertsona behar dugu urtebeteko haurra goizez zaintzeko (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 607 57 73 73

**Bilbao.** Orduka, goizez, Bilbon haurrak zaintzeko prest legoken norbaiten bila gabiltza. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 652 76 62 88. Monika

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa lanakegiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 609 41 38 97

**Tolosa.** Tolosan, arratsaldetan 3 ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 98 43 00.

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adin ertaineko emakume altsasuarrak bere burua eskaintzen du haurrak zaindu, adineko pertsonak atenditu edo etxeko lanak egiteko. Deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Aretxabaleta.** Alfonbrak eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659 62 02 49

**Arrasate.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 20 77 01

**Arrasate.** Neska gaztea gertu arratsaldez ile-apaindegian lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 42 79 88

**Arrasate.** Neska gaztea gertu arratsaldez eta astebukaeratan tabernan lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 42 79 88

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 79 77 54 edo 646 63 75 03

**Arrasate.** Hemengo neska gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo edozein lanetarako. Orduka ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 659 55 27 16 edo 943 10 96 31

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxeak zein atariak garbitzeko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 663 04 53 99

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 649 30 13 60

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 637 18 07 23

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak eta abar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 05 36 18

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketak, konponketak eta abar. Merke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 99 23 94

**Debagoiena.** Lagun esperientziaduna gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 650 17 74 87

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 600 76 43 14

**Debagoiena.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 652 07 63 50

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 605 76 05 59

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610 82 02 17

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko paperak dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 646 78 81 40

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Informazio gehiago jasotzeko

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
• Matxiategi 82 m$^2$. Eguzkitsua.
• Zubiaurre 230 m$^2$. Berritua.
• Aranerreka 85 m$^2$. Berritua.
• Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 60 m$^2$. Berritua. Gazteentzat.
• Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
• Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
• Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
• San Antonio, 46 m$^2$. Berritua.
• Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
• Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
• San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
• Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
• Aranerreka 80 m$^2$. Terrazarekin.
• Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
• Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
• Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
• San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
• Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
• **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
• **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
• Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
• Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
• San Roke 72 m$^2$. Berritua.
• San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
• Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
• Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

**BERGARA**
• Artekale, 89 m$^2$, ondo.
• Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
• Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
• Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
• Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
• Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
• Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
• Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
• Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
• Zubiaurre, 55 m$^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
• Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
• San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
• Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
• Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
• Urdangarin pasealekua,132 m$^2$, berritzeko.
• Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
• Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
• Matxiategi, 73 m$^2$, berritzeko.
• Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
• Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
• Simon Arrieta, 80 m$^2$, berritua. Oso ondo.
• Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
• Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
• Bidekurutzeta, 111 m$^2$, oso ondo.
• **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
• Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
• Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
• Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
• Eguzki auzoa, 85 m$^2$, oso eguzkitsua.
• Antigua 55 m$^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
• San Roke, 75 m$^2$, ia berria.
• Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

deitu ezazue telefono honetara: 608 08 36 02

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 01 91 12

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 669 49 83 24 edo 680 30 30 52

**Debagoiena.** Neska gertu 15:00etatik aurrera eta asteburuetan zerbitzari, sukalde laguntzaile edo umeak zaintzen jarduteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 679 04 42 68

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 680 30 24 64

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 52 15 98

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak eta beste. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 650 14 69 10

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Interesatuek deitu telefono zenbaki hauetara: 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 638 10 29 63

**Debagoiena.** Mutila aste bukaeretan zerbitzari lanak egiteko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 661 86 23 62

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarteak garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 685 70 76 25

**Debagoiena.** Atariak garbituko nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 38 10 07

**Debagoiena.** Emakume arduratsua arratsaldez edo aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 93 73 32

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 627 14 63 79

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 671 27 78 36

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 669 53 02 92

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 685 70 76 25

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein txakur edo animalia zaintzeko eta paseatzera ateratzeko prest. Merkea.Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 99 23 94

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Gertu nago adineko pertsonen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka.Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan edota baserriko lanetan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 671 45 96 26

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanetarako. Orduka zein etxean bizi izaten. Asteburuetan tabernan ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 669 02 91 30

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Zerbitzari ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 660 56 65 58

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 66 79 37

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 635 25 54 44

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 626 78 22 95

**Eibar.** Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo tabernetan lan egiteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 608 40 15 90.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 608 13 21 17.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Telefonoa:645 46 16 00.

**Eibar.** Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 25 29 57.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Telefonoa:680 463892.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 616 397348.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:699 81 38 26.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da goizez garbiketalanetarako edo kamarera moduan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 625 04 80 37.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Telefono zenbakia: 680 22 33 78.

**Eibar.** Haur Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldez. Esperientzia. 626 75 21 17.

**Eibar.** Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu, gaixoekin gaua pasatu (ospitalean edo etxean) eta etxeko lanak egiteko. Harremantarako telefono zenbakia: 664 17 46 54.

**Eibar.** Mutila eskaintzen da, gidatzeko C karnetarekin (makinista, atzerakako hondeamakina eta pala). Esperientzia. Telefonoa: 627 61 12 43.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Telefonoa: 608 89 76 39. Shirley.

**Gernika-Lumo.** Lan bila: txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu: 946 25 70 80 edo 676 60 75 68

**Goierri.** Erreferentzia onak dituen neskak, umeak edo adineko pertsonak zaintzen, edo garbiketa lanetan lan egingo luke. Harremanetarako 606 72 28 76 telefono zenbakira deitu.

**Goierri.** Neska arduratsuak eta eskarmentu handikoak, garbitzaile lanetan, zerbitzaribezela, adineko pertsonak zaintzen...lan egingo luke. 628 21 75 27.

**Goierri.** Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Ostalaritzan ere lan egiteko prest. Deitu: 696 28 94 54

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati 697 52 20 48

**Lasarte.** Goizez eta arratsaldez umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. Harremanetarako telefonoa: 688 66 37 81

**Sakana.** Arakilen umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Interesatuek 676 22 20 52 telefonora hots egin.

**Soraluze eta ingurua.** Haur hezkuntza ikasi duen eta integrazio soziala ikasten ari den neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Batez ere haurrak, nagusiak eta gaixoak zaintzeko prest. Esperientzia daukat baita hainbat ikastaro DYArekin eginak. Interesatuok idatzi mezedez. Telefonoa: 699 98 74 13 . Posta: *lelizburu@hotmail.com.*

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientzi handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoa baditut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki hauetara: 943 57 74 09eta 680244281. Erreferentziak ere baditut. *mariapilargarmendia@gmail.com*.

**Tolosaldea.** Tolosaldeko neska bat nahiz eta astegunez arratsaldeetan lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen, tabernan... interesatuak deitu 616 07 70 06 telefonora.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Gaztelaniazko solasaldiak izateko norbait beharko nuke. Alemana naiz eta gaztelania hobetu nahi dut. Trukean, alemana erakutsiko nioke interesatuari. Johanna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 689 33 30 75

**Bergara.** Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan daude. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 639 03 43 58

**Leintz Gatzaga.** Ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrila arte, hasiera baten. Autoa derrigorrezkoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 82 22 27.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 664 66 73 09

**Bergara.** Kimikan Lizentziatu batek Matematika, Fisika, Kimika, Natur-Zientziak eta Geologia eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 648 06 79 85

**Bergara.** Eskola partikularrak emateko gertu nago; DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera. Pilar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 76 16 42

**Bergara.** LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresaritza ikasketak egiten ari naiz. Idurre. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 676 25 22 22edo 943 76 03 34

**Busturialdea.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Printzipioz Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 680 53 84 42

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak emango nituzke. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 618 91 32 89

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699 39 20 20

**Debagoiena.** Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Merke. 610 97 49 68

**Debagoiena.** Eskola partikularrak ematen dira. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa. Ikasketak: Biologian lizentziatua eta euskara eta ingelesaren ezagumendu maila altua. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 635 72 02 05

**Debagoiena.** DBHko eta Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak eman edo haurrak zainduko nituzke. 943 76 71 51

**Debagoiena.** Arkitektura lizentziadun batek matematika, fisika, kimika, natur-zientziak, marrazketa... eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. 639 46 07 26

**Eibar.** LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira euskaraz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 25 29 57.

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak ematen ditu Gernikan Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 77 20 12 (Nahia)

**Iruñea.** Matematika, kimika edo fisikako klase partikularrak ematen dira, Iruñean. Bakoitzaren etxean (15€), edo nire etxean bertan (12€). Idatzi helbide honetara: *aitziberarbide@hotmail.com* . Milesker!

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika, eta abar). Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara :678 27 27 57

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroen Xsara** 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000km. Oso egoera onean. 1.200 euro. Deitu629 15 79 29 telefonora

**Honda Varadero** motorra salgai. 1.000 cc. 2006koa. 10.000 km. Deitu 615 76 49 14 telefono zenbakira.

**Kawasaki Z750 salgai .** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro.Harremanetan jartzeko deitu jarraian azaltzen den telefono zenbaki honetara:660 33 77 16.

**Peugeot 206** autoa salgai daukat. 7 urte dauzka. Oso prezio onean. Deitu ezazue 699 57 43 51 telefonora.

**Toyota Previa** monobolumena salgai. 7 plazakoa. Oso ondo zainduta. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 650 40 25 66.

